

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Ekainak 8 67. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

BIDEOAK PURI-PURIAN



MIKEL GARAI:
"Herri eraikuntzek
galantak izan behar dute"

Joseba



MODELO
BERRI-BERRIA
FORD MUGARRI



Adi ATBren ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)

Azoka kalea 1,

20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza

Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de

Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de

Mendizabal, Mikel Irizar, Karme

Zuazubiskar, Patxi Montero,

Juan Martin Elexpuru, Eukeni

Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo

Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus

Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo

Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,

Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,

Iñaki Aranburu, Hankamotz,

Maite Toledo, Atalataikoan, ASA Taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Karibetik zehar

Lan betebeharrak direla eta, urteko maiztasunez hurbildu behar izan dut Cubara, azken hiruotan. Eta lerro hauek, hain zuzen ere, La Habanako hotel baten terrazan idazten ari naiz, ilunabarra ilunagotuz hiri gainera lanbro ezohizkoa erortzen ari delarik.

Aldiko zortzi bat egun eman behar izan dudana hemengo egonaldietan, Cubako bizimodua hobeto ulertzen ahalegindu naizela esan dezaket. Lantegiak bisitatu ditut, bulego zeharo burokratizatutatik igaroz; kubar etxeetan oparitu naute, solasaldi mamitsu bezain erakargarritan; gau epeletako amets dirdiratsuetan Hemingwayrekin batera galdua naiz La Habana zaharrean; Guanabacoako bohioan, berriz, nire kultur eskemetan nekez koka nitzakeen istorio liluragarriak kontatu dizkit atso batek, mahai zahar batera eserita zigarro puruak prestatzen dituen bitartean.

"Sixties" nire liburuan zerbaitto aipatu nuen, kubar iraultzak nigan utzitako eraginaz eta milaka kilometrotatik aztertuta nik hari buruz neukan irudiaz. Oraingo perspektiba pragmatikoaren errealitatea azpimarratzen dut liburuan.

Baina nire hogeietan falta zitzaidan kritika-oreka berrogeietan hezur-mamitu da eta nire begi eta gogoz frogatutakoak ez du zerikusirik garai-ko argibide ezuzenekin. Ez nuke ino-

ren baitan sentimendu okerrik sortera zi nahi, lerro hauetako nire eritzia eritzi hutsa delarik, erlatibotasun eta absolutuan.

Cubak berdintasuna aukeratu zuen, printzipio guztien oinarritzat. Eta horretan darrai, oker ala zuzen. Berdintasuna, bizitza-kontzeptu bezala, askatasunaren aurkakotzat hartu behar da, eguneroko kurpilak ongi frogatua duenez. Eta hori horrela dela onartzen kritikiko izaten has gintezke, demokraziak ahalbideratzen digun ikuspuntu mugatutik ondorio zabaletara iristeko. Adibidez, lurarren mundu honetan paradisuak ez dagoela baieztatzen. Kubatarrei partiduaren diktadura inposatu zitzaie, partidutik beretik; betiko kurpil eroa.

Baina, aitortu behar, Cuban ez dut beste lurralde askotako miseria ezagutu; ezta mundu librean gizartearen mailak zulatzen dituen baloreen eskasiala ere. Errez ahazten zaizkigu mende-bal europarrei, gure erraietan jasaten ari garen era guztietako kalamitateak. Eta bertuteko paladinak bagina bezala, inoren etxeetan aholkuak ematen ahalegintzen gara, doan.

Hobe litzaiguke, erratza eskuratu eta gurea garbitzen hasiko bagina. Dударik gabe, karibear irla zoragarri honen negar eta alaitasunetatik hurbilago egongo ginateke.

Josemari Velez de Mendizabal

OGARAN
jatetxea

Garagaritza auzoa - t/797658 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**

Arrasateko Gazte Zerbitzuari

Idazki honen bidez, zuengana zuzetzen naiz guraso moduan, arazo batek asko kezkatzen naudelako eta behar bada zuen bidez konponbidea eman da-kiokoelako.

Gaurko eta lehengo gazteei asko gustatu izan zaigu bailara honetako jaietan parte hartzea, dibertitzea oso ona eta denok behar dugu gauza delako.

Dena den, kezkatzen nauen arazoa zera da: gazteek jaietatik etxera itzultzeko ez dutela izaten non etorri eta oso ordu desegokietan "auto stop" edo "oinez" etortzera behartuta aurkitzen direla, edozein ezbehar edo istripu larri gertatzeko arriskutan jarri.

Beraz, ez dut uste arazo honek konponbide zaila izango duenik, horrexegatik zuengana jotzen dut herriko gazteei ordu egoki batean etxera itzultzeko garraio zerbitzua jartzeko eskatuz (neure denboran tren espezialak jartzen zizkiguten) eta uste dut guraso askok eta gazte askok benetan eskertuko dizuetela.

Eskaera hau aintzakotzak hartuko duzuelakoan eta alde zurretik eskerak emanaz, agurtzen zaituzte

Guraso batek

Joxe Arantzabali eskutitz irekia

Hasteko, eskertu egin nahi dizuet bai zuri eta bai Arrasate Press-eko langileei astero-astero kaleratzen duzen produktua ondo egiteko agertzen duzen ardura, ikusi egiten da eta.

Astero irakurtzen dut zeuk idatzitako "Usteak uste" kolumnatxoa, eta egia esango badut, joan den astekoa irakurri ondoren kezkatxo bat erne da nire barrenean. Donibane Lohitzunen Haurren Kantu Txapelketaren azkena ikusi ondoren, bazatozte Mondragoera eta hara zein nolako "fregaua" topatzen duzen bertan: jendea oihuka, barrikadak berregiten, kristalak txikituta... eta zuk, Joxe, hirugarren pertsona baten esanetan jartzen duzu "ez

dago eskubiderik"; eta nik pentsa dezaket zu zeu ere eritzi berekoa zarela, edo?

Manifestariak zer oihukatzen zuten? Nondik nora biltzen da halako jende kopurua larunbat arratsalde batez egin zutena egiteko? Zergatik? Jakin nahi dut ea zeuk idatzitako kolumnatxoa zergatik ez duzun aipatu ere egiten GRAPO-ko preso bat gosez hiltzen utzi dutela PSOE-ko agintariak, eta horrexegatik zuela Arrasatek egun horretan Beiruten, Gazaren edo Belfast-en itxura gehiago. Eta badakizu zergatik? Franco, Chauchescou eta Thatcher moduko askotxo dabilelako.

Zuk zeure eritzia izango duzu, dudarik ez, baina zure kolumnatxoa irakurrita, badirudi zoro kuadrila bat inongo motiborik gabe arrasatear pazifikoen arratsalde izorratzen ari zela. Eta irudi hori sortaraztea ez zait bidezko iruditzen.

Ez ote da harritzekoa, elkartzeko beste eskakizunik egiten ez duten GRAPO-ko presoak euliak bailitzan hiltzen uztea eta jendea hain pasibo egotea eta salatzen duenaren jarrera mexpretxatzea?

Edozein modutan, adierazgarria izan badaiteke ere, detaile hau alde batera utzi nahi nuke eta gai sakonago batekiko nire kezka azaldu. Hots: Arrasate Press-eko orrietan era honetako komentarioetarako lekua egin behar dela uste duzu? Bizi dugun gatazka politikoaren aurrean era honetako komentarioek mesede edo kalte egiten diote Arrasate Press-ek lortu asmo duen euskararen aldeko proiektu integratzaileari?

Kakanahastu gabe arazo politikoan, badu, nire eritziz, Arrasate Press-ek eremu zabala jorratzeko; eta joan den astekoa bezalako komentarioak Arrasate Press-en funtzioa desitxuratzeko bidean egon litezke. Kontuz, beraz, eta ez ahaztu euskaldunok biltzen gaituena banatzen gaituena baino askoz ere garrantzitsuagoa dela!

Besarkada bat.



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atekak

Lagarreko pabiloi industriala
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

AURRERATZEKO

SF

AIZKORA

AUTOZERBITZUA


Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56



OSO GAUZA BEREZIAK

Zerkaosteta 8

Zer deritzozu festetan komun publikoak jartzeari?



Asier Bergaretxe
(ikaslea)

Nik ondo ikusten dut. Edozein modutan, ez dakit zenbateraino erabiltzen diren.



Maider Alzelai
(ikaslea)

Ondo ikusten dut, tabernak jendez beteta egoten dira eta.



Mª Teresa Bilbao
(etxeakoandrea)

Beharrezkoak direla uste dut. Hala eta guztiz, iaz oso erabilpen txarra eman geniela uste dut.




Antonio Fernandez
(langilea)

Ondo ikusten dut, ez dut uste jendeak derrigorrez tabernetara joan behar duenik.

LENIZ

AUTO ESKOLA



BADAUKAGU AUTOBUSA!!!

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

URRIN

Urbarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Zarraoa

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19




BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa 2/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuaren egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

8 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Proyecto Terror". 7 eta 9.30etan.
Novedades: "Asuntos sucios". 10.30etan.
- Bideo emanaldia: "Guatemala". Monterronen, arratsaldeko 7etan. Komite Internazionalistek antolatutako Ertamerika ezezaguna astearen ekitaldien barruan.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

9 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Asuntos sucios". 5, 7.30 eta 10.30etan.
Novedades: "Asuntos sucios". 5 eta 7.30etan. "La caja de música". 10.30etan.
- Futbol 24 orduak Kiroldegian, eguerdiko 12etatik aurrera.
- Pailazoak. Txim, Miri eta Txiribon. Arratsaldeko 6etan, Amaia antzokian.
- Donostiako Orfeoiaeren emanaldia. Oñatiko XII. Musikegunak ihardunaldien barruan. Oñatiko Santa Ana antzokian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: M Corcuera. Musakola

10 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Asuntos sucios". 5, 7.30 eta 10.30etan.
Novedades: "Asuntos sucios". 5, 7.30 eta 10.15etan.
- "Bakarleri Txekiarrak" en kontzertua. Oñatiko XII. Musikegunak ekitaldien barruan. Oñatiko Santa Ana antzokian, arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Inzar. Erguin.

11 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Asuntos sucios". 7 eta 9.30etan.
Novedades: "Asuntos sucios". 7.30etan.
- Bertako mendizaleen diapositiba emanaldia. Besaiden Mendizale Elkartearen lokaletan, gaueko 9etan. "Mendi Astea 90" ekitaldien barruan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

12 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Asuntos sucios". 7 eta 9.30etan.
- Pirineotako diapositiba emanaldia eta "Mediterraneotik Donostiara eskiz". Monterronen, gaueko 9etan. "Mendi Astea 90" ekitaldien barruan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

13 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Espeologoi diapositiba emanaldia. "Sistema del hayal de Ponata". Monterronen, arratsaldeko 8etan. "Mendi Astea 90" ekitaldien barruan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

14 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "La caja de música". 7 eta 9.30etan.
- Zine-klub: "Pasiones en Kenia" pelikula ikusteko aukera. Arratsaldeko 8.30etan, Amaia antzokian.
- Hitzaldia: "Elkadura mendian eta mendirako" gaiaren inguruan. Monterronen, gaueko 9etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

IKASTAROAK

- **Eskaiola dekorazioari buruzko ikastaroa**, Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatuta. Luzaroan langabezia edota lehen erpleguaren bila daudenei zuzendua. Ekainaren 11tik datorren urteko urriaren 31 arte. Izen emateak, Deba Garaiko Udal Elkarteak. Tfnoa: 79 04 59
- **C. Lengoaia II. maila**. Ekainaren 11tik 22ra bitartean Arrasateko IMIn.
- **Enkofragintza ikastaroa**. INEMek antolatuta. Tfnoa: 79 13 95


AUTOBUSAK

- Ekainaren 10ean Abetxukon izango den, "Araba Euskaraz" era joateko autobusak. Izen emateak, Hire liburategian, Iturriotz tabernan edo AED elkarteak.

IRTEERAK


- **Arrasate-Anboto-Abadiño**. Ekainaren 10ean, Besaide mendizale elkarteak antolatuta. Izen emateak, Besaide Mendizale Elkartearen lokaletan.

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzateke Euskarari Hiztegi hau gabe...? Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuki dotore eta, aldi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntzilamuzko azalak, 24 kilatekato urez sutan eginak estantpazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnak zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterkilarako.



Euskara ikasteko erabili beharreko obra

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

“Urteetan zehar gure berezko irteera Bilbo izan da. Aretxabaleta Donostiatik oso urrun dago. Bestalde, nire ustez Errealak duela urte batzuk hanka sartu zuen, 1985ean, probintziako ekipoei laguntza emateari utzi zienean. Une honetan UDAk, Bilboko Athleticekin elkarri laguntzeko akordio bat du, txurigorriek lehentasuna dutelarik. Errealak ez du jakin bere ‘harrobia’ zaintzen. Beti ikusi izan dugu jarrera hobeia Athletic-engan, gure futbol-basearen aurrean. Mutikoengana etorri eta Lezamara eramaten dituzte, kamisetak oparitzen dizkiete, Koka-kola eta patata batzuekin. Detalle txikiak dira, baina txuri-urдинen aldeko mutiko baten bizitza txuri-gorri bihurtzen dutenak”.

(Rafael Rimaldo, Aretxabaletako ‘Zubizarreta Peña’ko lehendakariak DVn)

“Jesus Larrañagak, EAren ejekutibako ekonomi saileko arduradunaren ustetan, Europako Merkatu bakarra ezartzen denean Euskal Herriari geratuko zaion aukera bakarra bere garapena da, konpetentzia gehiago eduki ahala bideragarri bihurtuko duena. Larrañaga jaunak ikerlanarekin zerikusia duten transferentziak eskatu zituen eta Katalunyan marxan jarri den dinamika goraiatu zuen, ‘goi mailako teknologi sektoreetan inbertsioak ekarri dituztelarik’. EAko gidari honek biolentzia politikoak Euskal Herrian sortu duen kaltea salatu zuen, eta era berean aipatu, azken urteotan kanpoan jaso duten irudi txarrak katalanen eredia jarraitzea galerazi digula”

(Javier Muñoz kazetariak Correan)

Zer deritzozue Udalak Arrasate Musikali buruz hartutako erabakiari? Aurrerantzean zer gertatuko da?

Oso gaizki hartu dugu Udalak hartutako erabakia. Hiru alderdi politikok ostiraleko plenora arte Arrasate Musikal kontserbategi bihurtzearen alde zeuden, baina azken orduan batek eritiziz aldatu zuen.


Horren ondorioz, egoera erabat aldatu da. Arrasate Musikaleko zuzendaritza batzordeak, azken lau urteetan Arrasate Musikal kontserbategi bihurtzeko lan egin du. Guk geure helburu guztiak beteta genituela uste genuen, baina ez da horrela gertatu.

Udalak hartutako erabakiaren ondorioz, Arrasate Musikalek, nahiz eta Udalaren dirulaguntza izan, pribatu izaten segituko du. Hitzarmena hiru urtetarako sinatuko da eta hiru urteren buruan Arrasate Musikal kontserbategi bihurtzeko aukera gutxi dagoela uste dugu.

Hiru urte horietan, kontserbatorioren bat egin dezakete. Gaur egun herri horiek kontserbategia egiteko baldintzak betetzen ez badituzte ere, hemendik hiru urtetara bete ditzakete eta. Oinarrizko kontserbategi horrek, erdi mailakoa bihurtzeko aukera izango du eta gure matrikulazio guztiak kontserbategi horretara joan beharko dute. Musika Irakaskuntzaren Kontseilu Aholkulariak, aurki, Elkarte Autonomoko kontserbategi mapak Leintz Bailarako kontserbategi bakarra arautuko du eta gu kontserbategi barik geratuko gara.

Pena handia hartu dugu, Udalak ez duelako Arrasate Musikal bereganatu nahi, ez duelako Udal Kontserbategia izatea nahi. 18 urte eta gero, hori baino gehiago espero genuen, diruak ez bait du dena konpontzen.

Juan Luis Castillo
Arrasate Musikal-eko lehendakaria



Parques
y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



San Juanak 1990

Dena prest herriko jai nagusiak ospatzeko

San Juan jaien behin behineko egitaraua dagoeneko prest dago. Aurtengo San Juan jaiek, 12 milioi-ko aurrekontua izango dute. Nobedade gisa aipagarriak izan daitezke, Bilboko Udal Bandaren ekitaldia, Mikel Laboak eta M-ak taldeak Monterronen izango duten jaialdia, Juanito Arzamendik egin duen "Aupa Arrasate" himnoaren aurkezpena edota Erramun Irastorzak Gari-bai Dorrea eskalatuko duela.

Lore Gazteak dantza taldeak, Dantzari Txiki eguna indartzeko egiten ari den ahalegina azpimarratu eta arrasatear guztiei deia luzatu

die egun honetan umeak etxeetan jasotzeko zein kaleko ekitaldietan parte hartzeko.

Kuadrila Batzordeko kideek berri, aurreko urteetan Hauts Gauean iskanbila ederrak izan direnez, aurtentzekorik gerta ez dadin, ekin-tza hau umorez hartzeko gonbitea eta parte hartzeko deia luzatu diote jendeari.

Iaz komun portatilak egokitu ziren, baina jendeak erabili ez zituenenez, aurtentzekorik gerta ez dadin, ekin-tza hau umorez hartzeko gonbitea eta parte hartzeko deia luzatu diote jendeari.

Kooperatibek San Juanetan, opor luzerik ez dutenez, jaietan parte hartze handia egotea espero da.

Euskal Egunkariaren aldeko kanpaina

Joan den astean eratu zen Arrasateko Egunkaria Sortzen batzordea eta dagoeneko zehaztu dira egunkariaren aldeko kanpainan Arrasaten egingo diren ekintzak. Hilaren 16an, Egunkari Eguna burutuko da. Egun honetan, bi metroko egunkari erraldoia osatuko da. Hilaren 23 edo 24ean, bestalde, Egunkariaren aldeko diru-bilketa egingo da. Kanpainen helburua, Egunkaria kaleratzeko behar diren 150 milioien herena lortzea da, hau da, 50 milioi. Deba Garaian 4 milioi batu nahi da.

Egunkariaren aldeko kanpainen parte hartu nahi dutenek, AED elkar-tean izango dute Egunkaria Sortzen Batzordearekin harremanetan jartzeko aukera.



Eskifaia abesbatza

Joan den larunbatean, Hondarribiko Eskifaia abesbatzak Arrasateko Parrokian abestaldi ederra eskaini zuen. Ekitaldia, Arrasateko Goikobalu abesbatzak antolatu zuen, musika polifonikoa herrian hedatzeko asmoz.

Eskifaia abesbatza, 1978. urtean sortu zen musika zaletasuna zabaltzeko asmoz eta ordutik hona, abesbatza Javier Bustok zuzendu du.

Larunbateko ekitaldian besteak beste, Guridi, Egiguren, Niedt eta Arregiren zenbait lan abestu zuten. Javier Bustoren, Bakearen kantika entzuteko aukera ere izan genuen.

a.d.o.s.

PSIKOLOGOAK

DIAGNOSTIKO ETA ORIENTAZIO PSIKOLOGIKORAKO ELKARTEA

- DIAGNOSTIKOA ETA PSIKOTERAPIA (HAUR ETA HELDUENTZAT)
- ESKOLA, LANBIDE ETA BIZITZARAKO ORIENTAZIOA

Arca 3 1. D Tfnoa: 943-141214 01005 GASTEIZ



PEÑACOBA
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

ORTZI
erretegia

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

Korpus eguna

Aurten, Korpus Eguna ostegunean ospatu beharrean, igandean ospatuko dute. Edozein modutan, kalendario aldaketa honek ez ditu larritu ofñatiarrak eta jai hauek, udaberriko jaiak izaten segitzeko ahaleginak egiteko prest daude.

Korpus Eguna hilaren 17an bada ere, ekitaldiak ekainaren 9an hasiko dira. Egun honetan, Santa Ana Antzokian, Donostiako Orfeoiak Oñatiko XII. Musika egunen ihardunaldiei hasiera emango die. Hurrengo egunean berriz, Bakarleri Txekiarren emanaldiaz gozatzeko aukera

Hilaren 16an, nabedaderik nagusiena, Lloreñ Barber-en kanpai kontzertua. Kontzerturako herriko 7 kanpandorre erabiliko dira. Eskainiko den kontzertua Oñatirako bereziki prestatutakoa da.

Igandean, azkenik, Korpus Eguna izango da. Urtero bezala, Meza Nagusia egin ondoren, Korpuseko Prozesioa herriko kale nagusietan zehar eta Korpus eguneko dantza egitarau osoa eskainiz, Oñatiko Oñatz dantza taldearen emanaldia ikusteko aukera ederra izango da.



Txandaka

Prozesionaria erasotzeko "dimilina" ez al da kaltegarria?

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak "thaumata-poca pityocampa", orohar pinuaren prozesionaria deituriko izurriteari buruz eginiko hitzarmenak, eskuak libre lagatzen ditu haizetik edozein tratamendu kimiko Bizkaian zein Gipuzkoan zabaltzeko; nahiz eta jabeen baimenik ez izan.



J. Luis Encinas "Piter" (*)

Neurri hau, iaz be erabilittakue, Deba Garaia zein Beheko mendietan izango dau eraginik, hamengo mendixak lurraldeko minduenak dirala kontutan izanik.

Izurrite honen egungo indartzearen arrazoia hor dago, administraritzak bultzatu dauen ohian politika ezko-rran: gure mendi eta paisaia insignis pinuzko monokultiboak bilakatuz. Azkenik, eta iragandako neguko suteek kontuan harturik, ez al da pinua bera benetako plaga?

Erabili gure dauen produktoa "Dimilin" da; hau "hezkuntza-erregulatzaile" deituriko pestizida da eta bel-dareen (oruga) muda garaian kitina egiketaren inibitzaile gertatzen da. Baina dakigunez, kitina da intsektuen eskeletoa gogortzen duen sustantzia, eta Dimilinek ordea mesedegarri diran intsektu asko, erleak, armiarmak, berez prozesionariazale direnak, erasotzen ditu.

Behin eta berriro presaka emandako botika gaitza bera baino kaltegarriago azaltzen zaigu. Eta egia esan, Dimi-

linek ez du pinua bera erasotzen, baina inguru-nea zeharo kutsatzen du, oreka ekologikoa apurtzen duelarik. Kontuan hartzekoa da tratamendu hau ematean arrazoi ekonomikoak izaten direla kontuan eta inoiz ez ekologikoak.

Berriki eta prestigiozko zenbait erakunderen ikerketen arabera, Dimilina ez omen da beste batzuk dioten bezain mesedegarri. Gaur egun bere erabilera mugatua edo debekatua dagoelarik estatu askotan, bitartean toxizitateari buruzko zenbait ikerketen zain egonik.

Gaur egun, jakin badakigu "Dimilina" materia organikoari itsasten zaio-la eta pentsa liteke gai honen puska handi bat ibaietan zuzenki jausten dela, amuarrainek metabolizatzen dutela bait dakigu.

Susmorik badago hegazkien hormonal eragin handia duenik, beraien ziklo sortzailea aldatzen duelarik.

EKItik prozesionaria erregulatzeko lur eremuaren tratamendu integrala proposatzen dugu eta hura erasotzeko, jada frogatuta dagoen borroka biologikoa, hala nola feromonadun tranpa, boltsak moztea ondoren deuseztuz, "bacillus thuringiensis" bakteriaz tratatzea edo "smithiavirus pityocampae" birusaz, edo inurri gorritzko inurritegiak hedatzea, eta nola ez, gauenara eta egazki intsektuzaleen zainketa zein erabilera.

(*) EKIkko partaidea



Arrasateko jatetxea

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE



Imanol Murua, Xabier Zubizarretarekin saihesbidea inauguratzen

Saihesbidea zabalik

Urte t'erdiko atzerapenaz, eta kostoak bikoiztuta

Atzo eguerdian, inauguratu zen ofizialki Arrasateko saihesbidea. Ekitaldian, besteak beste, Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkatea, Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu nagusiak, Jesus M^a Akizu, Udal harremanetarako diputatua eta Julen Goikoetxea, Garraio eta Herri Lanetarako diputatuak parte hartu zuten.

Ekitaldian esku hartu zutenek, Arrasateko Udaletxeko lanak ikusi ondoren, Eroski pareko saihesbiderako sarrerara joan ziren, saihesbidea ofizialki inauguratuz.

Gogoratu saihesbideak, orain urte t'erdiko, 1988. urteko abendurako, bukatuta egon behar zuela, baina Altuna y Uria enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izan zituen tirabirak medio, atzerapen handia izan zuten lanek.

Saihesbidea ia bukatuta zegoenean, apirilko euriteek, ekarri zituzten lur-jauzien eraginez atzerapen berria izan zuten lanek. Altuna y Uria enpresakoak gogor aritu ziren hondatutakoa konpontzen eta azkenean saihesbidea inauguratuta ikusi dugu.

Gogoratu, Nafarroa etorbideko saihesbiderako sarrera oraindik egiteke dagoela. Sarrera hau, ez zegoen lanen hasierako egitasmoan. Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiari, sarrera egitea eskatu zion eta honek onartu. Edozein modutan, atzerapen berririk ez izateko saihsbidea trafikora zabaldu ondoren egingo da sarrera berria.

Espero dezagun, beraz, Arrasateko jasaten duen trafiko arazoa nolabait konpontzea hemendik aurrera.

Usteak uste...

Orain hogeitamar urte inguru hasi zen Arrasateko herria bere jubilatuek omentzen. Orduan oso gutxi izango ziren hirurogeitabost urtetik goragoak. Musakolako kiroldegiko gimnasialekuan larunbat eguerdian ikus zitezkeen ikuspegiak zerikusirik apenas izango zuen hasierako urte haiekin. 1.150 bazkari prestatu zituen Auzo Lagunek. Hortik atera kontuak.

Gure jubilatuek pozik igaro zuten eguna, SDUCek eraturako egitaraua egokia oso bait zen. Argi gelditu zen gure herria gai dela geure nagusienganako maitasuna eta eskerrona adierazteko. Agintariak bertan egon ziren hori baieztatzeke.

Lorpen horretan ezin SDUC aipatu barik utzi. Zenbat lan egin ari diren gazte eta heldu hauek danborrada, jaiak, omenaldiak eta askotan esker gutxiko horrelako gauzak antolatzen! Gure txalorik beroena merezi dute beren denbora komunitateari musutruke behin eta berriro emateko gertu dauden hauek.

Omenaldiaz gain, hala ere, egunerokotasunak hartzen du sekulako garrantzia zahar eta jubilatuen bizitzetan, kasurik gehienetan haien bizitzak jubilatuaurretiko ihardunekin zerikusi txikia duelako. Geroz eta irudimen eta baliabide gehiago inbertitu behar ditugu geure nagusien zahartzarora ahalik eta aberasgarri eta atseginen izan dadin. Hor dugu datozen urteetarako apustu latza.

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarka 6,


ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24



Blanca Jauregi, Gazte dinamizatzailea

Gazteen Informaziorako Bulegoa

Joan den astetik, arrasatearrek zerbitzu berria

Ofizialki ez bada ere, dagoeneko irekita dago, Garibai Etxean, Gazteen Informaziorako Udal Bulegoa. Bulego hau antolatzeak gutxi gora behera zazpi milioiko kostua izan du. Udal bulego honetan Arrasateko gazteek, edozelako informazioa aurki dezakete, besteak beste, bidaiak, bekak, lan-ihardunaldiak, kontzientzia eragozpena, etab. luzea.


Gazte Zerbitzuak azken bi urteetan informazio zerbitzua eskaini du, baina Udaletxetik kanpo izatean, jendeak bertara joateko beldur gutxiago izango duelakoan, herriaren-

gana hurbiltzea izan da bulegoa irekitzeko arrazoietakoa bat.

Arrasateko Gazteen Informaziorako Udal Bulegoa, Eusko Jaurlaritzaren bidez, Elkarte Autonomoko beste udal bulegoekin koordinatuta dago eta Unibertsitate, Gazteen Institutua, Enbajada etab.ekin harremanak ditu.

Bulegoa, goizez, 11etatik ordu 1a bitartean eta arratsaldez 5etatik 7etara izango ditu atek irekita.

Gazteen Informaziorako Udal Bulegoa Udaletxe zaharrarekin batera inauguratuko da ofizialki.



J. Migel Manzidor hil da

Ostegun goizean gorpu aurkitu zuten Jose Migel Manzidor Otala auzoan Ikasbidek duen etxe aurrean, bihotzekoak jota, antza.

1935ean jaio zen Zumaian. Madrilen ikasi zuen Injinerutza Teknikoa. Aldi batez Zumaian lan egin ostean, 1969an Arrasatera etorri zen, 76tik 84era arte EPPko zuzendari orokorra izan zen.

Ikasbide sortu zenetik, Zuzendaritzako eta Posgraduatuaren Heziketa Zuzendaria zen. Emaztea eta bi seme-alaba utzi ditu.

JAIOTZAK

Ugarte Larreta, *Aratz*. Maiatzaren 29an. Salaberria Astarloa, *Irati*. 29an. Arizmendi Maiztegi, *Jon*. 30an. Martinez Iregi, *Ainara*. 31n.

EZKONTZAK

Felix Aranegi Mondragon & Elena Bereziabar Ziorraga. Maiatzaren 29an. Elizez.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea

Jose M^a Gomez doktorea

A. Otalora doktorea

A. Estomba doktorea

M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



KOLTA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

IRRATI-
IRATZARGAILUA



**OKIENDO
KIROLAK**

ZAPATILAK



MELIA BIDAIAK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT

Ikatz

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA

Hileko sari handia



**SARITUA:
AINHOA
LASAGA OLABE**

ASTE HONETAKO
SARITUAK

YESIKA MARTIN
Irrati-iratzargailua

IMANOL ARANBURU
Bi lagunentzako afaria

LEIRE ZUBIZARRETA
Kirol zapatilak

JOSU ARANGUREN
Argazki makina


Galdera:

Non dago Udal Gazte Zerbitzuaren bulego berria?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: Adina: Tlfnoa:



Cordoba y Oro plaza

Lurrazpiko aparkalerkurik ez

Jendeak ez du izenik eman aparkalekuetarako

Aste honetako Gobernu-Batzordeak, Eusko Promociones enpresari Cordoba y Oro eta Obenerreka plazetan lurrazpiko aparkalekuak egiteko adjudikazioa kentzea erabaki du.

Eusko Promociones-ek Udaleko Hirigintza Batzordeari jakin erazion, oso jende gutxik eskatu duela lurrazpiko aparkalekuetan lekua lortzeko izena eta ondorioz, ezinezkoa dela aparkalerkurik egitea.

Gobernu Batzordeak, egoera aztertuta ondoren, adjudikazioa kentzea erabaki du eta momentuz behintzat

ez da aparkalerkurik egingo.

Antza denez, auzo horietako bizilagunek, aparkalekuen jabegoa eskuratzea eta aparkalekuak itxiak izatea nahi dute.

Udalak berriz, aparkaleku irekiak egitea erabaki zuen. Aparkalekuak, 50 urteko kontzesioa izango zuten, ondoren, Udalaren eskuetara itzuli beharko zutelarik. Arrazoi hauek direla medio, oso auzokide gutxik eman du izena aparkalekuak eskuratzeko eta ondorioz auzo horietan ez da aparkalerkurik egingo.

Abiadura jaisteko kontrolak

Gipuzkoa etorbidean, autoen abiadura jaisteko kontrolak jarriko dira. Kontrol hauek Sociedad Ibérica de Construcciones Eléctricas SA enpresak jarriko ditu. Lanen kostoa 1.836.842 pta.koa izango da.

Umezaintza publikazio bidean

Umezaintza haur eskolak, Udalari eskola bere gain hartzea eskatu dio. Hezkuntza Sistema, haurtzaroko heziketaren beharrez kontzientzia hartzen ari dela, umezaintzak dirulaguntza urriak dituenez, ezin diola gizarte osoari bere zerbitzua eskaini eta umeak gero eta goizago eskolaratzen direla kontuan izan da, egin dio Umezaintzak eskaera Udalari. Udalak, txostena aztertzeari ekin dio.

II. Arte Hamabostaldia

"II. Arte Hamabostaldia" prestatzen ari izan den taldeak aste honetan aurkeztu dio Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeari, aurtengo ekitaldiaren egitasmoa. *Hamabostaldi taldeak* aurkeztu duen proiektuaren arabera, arte eremu guztietan lanean diharduten artistei luzatuko zaie Hamabostaldian parte hartzeko gonbitea. Lanen gaia, "*Arrasate: bere inguru natural eta urbanoa*" izango da. Aurkeztutako proiektuen artean bost aukeratuko dira.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABAETA

VE ECUADOR

Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

L ARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Arrasate Musikal pribatua

Azken orduan HBk jarrera aldatu

Sorpresa handia egon zen Udalaren azken plenoan, Arrasate Musikalen gaia aztertu zenean. Harridura HBren jarrera aldaketak ekarri zuen, ordura arte, Arrasate Musikal Udal kontserbategi bihurtzearen alde agertu zen eta. HB, EA eta EAJk gero onartuko zen proposamen bateratua aurkeztu zuten.

Proposamenaren arabera, ez da onartzen Arrasate Musikal municipalizatzea, harik eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Elkarteari dagokion musika irakaskuntza arautu arte. Bitarte horretan Arrasate

Musikalek Udalarena balitz besteko dirulaguntza jasoko du. Musika ikasi nahi duten guztiek sartzeko aukera izan dezaten, kuota batzuk jarriko dira. Irakasleen lan baldintzak arautuko dira eta gerente bat izendatuko akademiaren gestioa aurrera eramateko. Arrasate Musikalek beharrezko dituen lokalez hornitzeko konpromezua ere hartu zuen Udalak.

Hurrengo hiru urteen buruan Eusko Jaurlaritzak erabakirik hartzen ez badu, Arrasateko Udalak beraztertu egingo du Arrasate Musikalen egoera.

■ Dantzari Txiki eguna

Ekainaren 17an egingo da Dantzari Txiki Eguna. Egun honetan haurren bat etxean hartu nahi dutenek, Hire liburutegian edota AED elkartean eman beharko dute izena.

Ertamerika ezezaguna

Kultur aste interesgarria izan da astean zehar Arrasateko Komite Internazionalistek antolatuta.

Hitzaldi eta bideo emanaldiak izan dira egunero eta honez gain, ekintza hauek borobiltzeko, argazki eta artesautza erakusketak antolatu dituzte. Era berean, herrialde hauetako politika, geografia eta historia ezagutzeko aukera izango da, gaia azaltzen duten panel batzuk jarri dira eta.



IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORATZA

Magisterio Eskola honek zera jakin erazi du:

**1990-91 IKASTURTERAKO
AURREINSKRIPZIO-EPEA ZABALIK DAGOELA**

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Gipuzkoa

Tfnoa: 943 - 79 04 40

Ordutegia: 9-12 eta 15-18

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako

klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56


KAJI TABERNA

erdiko kale 22

tfnoa: 79 32 27



Udalaren azken osoko Bilkurak ikusmin handia sortu zuen, gaiak ere inportanteak ziren eta. Ikusleen artean gaztetxo hauek. S.Frantzisko Xabier ikastolako 7. mailako neska-mutiko hauek arreta handiz jarraitu zuten plenoa eta ohar piloak hartu. Egun aproposa aukeratu zuten, eztabaida ez zen falta izan eta. Aukeran luzeegi, akaso.




C O R P O R A C I O N
UCEM

Produktuak egin bakarrik ez, baizik eta jenero hori gero nola saldu geroz eta garratzi handiagoa hartzen ari den honetan, enpresa-irudia ere -anagramatik hasita- ikaragarri ari da zaintzen. Gure artean Fagor izan zen lehenetakoa, gero Roneo eta orain **Corporación UCEMi** tokatu zaio. Hauxe duzue prentsan eza-gutzera eman duen anagrama berria. Gustatzen?



◀ **Asier Aranguren** aretxabale-tarra itzuli da dagoeneko Bostongo Unibertsitatetik. Urtebete t'erdiko masterra -Telebista Zuzendaritzari buruz- urtebetean burutu eta gero, doktoradutzaren bigarren kurtsua amaituko du orain. Besteak beste, doaneko prentsari buruzko lana aurkeztu behar du ekainerako. Asierrek Arrasate Press aukeratu du bere lanerako. Hor dabil informazioa biltzen. Lanaren kopia bat emango digula agindu digu.



AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECElko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

**“Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago”**

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



ETXE-AUNDI Dastapen-menua ekainaren 15erako

- Meki-zuku hotza otarrainskekin
 - Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
 - Txahal-solmoa espinaka gainean Rossini saltsaz
 - Errekako amorraina ziap-sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
 - Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.
- 2.900 pzta BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

izen propioak

◀ Aurrera darrai *Saski Naski* lehiaketak. Argazkian, pasa den asteko lau irabazleetatik hiru: Etxe Aundiko afaria **Danel Hernandezek** irabazi zuen; Okendo Kirolak-eko zapatilak irabazi zituen **Jon Ugartetxeak**; eta Aranzabaleko irrati-iratzargailua **Jonas Isazelaia** irabazi zuen. Sariak ematen, Karmele Isazelaia, Arrasate Press-eko idazkaria.

Argazkian agertzen ez den arren, **Iban Deograsiasek** Ikatz-eko argazki makina jaso zuen.

■ **Aitor Sarasua**, 22, aretxabaletarra, "Loiola 91" bertso paper lehiaketan 3. saria irabazi du. Aitorrek Injinerutza tekniko ikasketak egin ditu Arrasateko Eskola Politeknikoan eta gaur egun Imemo Aretxabaletako injinerutza bulegoan lanean dihardu. Bertsotan oso gazte zela hasi zen eta Almen-eko bertso eskolan ari izan da ikasten urtetan.

■ **Mertxe Garai**, 25, arrasatearra, Arrasateko Euskara Zerbitzuko administrari berria da. Mertxek UBI ikasketak burutu zituen Eskoriatzako Dorletako Ama Ikastetxean. Arrasateko Udaletxean eta Lagun Aro Aseguruetan lanean ari izan da.

■ **Estibalez Ormaetxea**, 57, arrasatearra, San Juan Kartel Lehiaketa irabazi du. Estibaliz, orain hamazortzi urte hasi zen margotzen eta bere lanen erakusketa ugari egin izan du. UCEMeko pertsonal sailean 35 urtez lan egin zuen.

Euskal Kazetarien ihardunaldiak egin ziren joan den astean Donostiako Igeldo hotelean Eusko Jaurjaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak antolatuta. Bildutako berrogei inguru kazetarien artean gure bailarak izan zuen bere ordezkaritza. Ezkerretik hasita *Edorta Arana, Joxe Aranzabal, Asier Aranguren, Joserra Gartzia* eta *Jon Sarasua*, atzkaldean Kontxako badia dutelarik. ▶



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU


Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan

Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Zinea etxeko egongelan

Bideoari esker, aukeratutako pelikula nahi den orduan

Azken boladan, albiste bihurtu zaigu bideoaren mundua. Ertzaintzak egindako hainbat ikerketaren ondorioz, guztira 1.500 pelikula pirata harrapatu dituzte Gipuzkoako hamalau denda desberdinetan. Hamalau denda horietako bost Deba Garaikoak dira, eta lau jabe batenak, Kortarenak, hain zuzen ere. Honako honetan, guk mundu horri buruzko xehetasunak bildu eta landu ditugu. Negozioa, bideoa; eta negozio horren tranpa, filme piratak.



Hainbeste filmeren artean, zaila ere bada bat aukeratzea...

Bospasei urte igaro dira bideoaren 'boom'a ezagutu genuenetik. Ordutik hona, sei izan dira Arrasaten bideofilmen komertzioari ekin dioten dendak. Ez da, halere, zifra oso altua; 5.000 pertsonako denda bakarra.

Hasiera batean, eta prezio altuek eraginda, gutxi ziren etxean pelikulak ikusteko magnetoskopioa zutenak. Gaur egun, ordea, merketu egin da kontua. 60.000 pta.tan eros daiteke bideoa, eta ondorioz, etxerik etxe zabaldu zaigu.

Asteburuko zaletuak

Mondragoeren kasuan, jende kopuru handienak asteburuetan jasotzen ditu bideofilmak. Batzuk egunero, baina gutxi dira horiek.

Gustuei dagokienez, aipatu zaila dela pauta orokor bati buruz hitz egi-

tea. Dena den, antza denez, jendeak abentura-filmeak atsegin ditu bati-pat. Gogorregiak ez; familia osoak ikus ditzakeenak, haurrak barme.

Horrez gain, asteburuetan ere

Bideoari, telebistaren mundutik datorkio kompetentzia: TVE, ETB eta kate pribatuak, ospe handiko pelikulen bila

maiz alokatzen omen dira filme erotikoak, gorputzari biperra ematen diotenak hain zuzen. Jakina, asteburuetan saltsero xamar bihurtzen bait gara guztiok.

Eguraldiaren eragina

Dendarien esanetan, eguraldiaren eragina izugarria da filmeak alokatzeko orduan.

Asteburuak euritsuak suertatzen direnean, mundu guztia pelikula eske; eguraldi ona datorrenean, ostera, jendeari irtetea atsegin zaio, eta inor gutxi gogoratzen da etxeko egongelan duen bideoaz.

Gauzak horrela, negu partean ere ohitura handiagoa izaten omen dute bazkideek dendatik pasatzeko, uda-berri eta uda aldean baino.

Igarri ere igarri dute aurtengo negu ezti, goxoa. Euri gutxi, elurrik bat ere ez, eta ondorioz, alokairuak behera egin du orokorrean hartuta.

Telebistaren lehia

Bideoaren agerpen eta arrakastak zinema askotxoren porrota ekarri zuen bezala, bideoari berari ere sortu zaio etsai amorratua: telebista.

Euskal Herrian oraindik eragin handirik ez duten arren, Madril, Bartzelona edota Valentzia bezalako hirietan telebista kate pribatuek negozio honen hondamendia suposatute. Sekretua, ospe handiko pelikulaz osatutako programazioa.

Eta, noski, lehenago edo beranduago kate pribatu horiek gure artean ere hedatu egingo direnez, Euskal Telebista adibidez hasia da neurriak hartzen.

Dendarien ustetan, azken bola-

dan asko hobetu dira ETBren filme emanaldiak. Horren ondorioa? Ba, jendeak aprobetxatu egiten duela ente publikoaren doaneko aukera, eta xoxak bideo-dendatan utzi beharrean, beste kontu batzuetarako gordetzen dituela.

Alokairuei eutsi

Gauzak horrela, badirudi hurren-

go urteetan, Gipuzkoako 200 dendetatik erdia desagertu egingo direla, telebista kate pribatuak heldu ahala.

Dena den, eta Arrasaten alokatzen diren pelikulen kopurua zertxobait jaitsi den arren, dendarien usteetan hemen ez da arazorik egongo bide onetik jarraitzeko.

Alde batetik, geroz eta epe laburragoan komertzializatzen direlako azken orduko filmeak. Lehen urtebete itxaron behar zinean agertzen zirenetik, bideoan heldu arte; orain, ordea, sei hilabete besterik ez.

Bestetik, oraindik gaur eskaintza paregabea delako jendearentzat, norberak aukeratutako pelikula norberak aukeratutako orduan ikustea.



Zalntza bank, bezero onenentzako artean bideoa duten tabernariak aurkitzen ditugu.

Piratak direla, piratak

Bideoaren munduak minbizirik badu, zalantza barik hori pirateoa dugu. Antza denez, Gipuzkoan alokatzen diren pelikulen %30a legez kanpokoak dira.

Gipuzkoako Bideo-klub Elkarteak (VAG) eskatuta, Ertzaintzak hainbat ikerketa egiteari ekin zion duela hilabete batzuk. Ikerketen ondorioz, 1.500 filme pirata harrapatu dituzte hamalau denda ezberdinetan.

Denda horietako bost Donostiakoak dira; bat Andoaingoa; beste bat Beasaingo; baita Billabonako bat, eta Pasai Antxioko beste bat.

Dena den, eta guri dagokigunez, aipatu gainontzeko bostak Deba Garaikoak direla.

Arrasateko *Daglasen* 74 pelikula pirata aurkitu zituzten.

Kortarenek diren lau Bideo-klubak ere aipatu egin behar. Eskoriatzako *Eguskin* 155, Oñatiko *Onenan* 133, Arrasateko *Ihargin* 125, eta *Arrasaten* 44 legez kanpoko filme topatu ziren.

Erraza omen da pirateoa egitea. Bi magnetoskopio behar dira. Pelikula lortu, eta zinta hutsetan nahi beste kopia egin.

Kalitate makaleko bideo pirata bat 500 pta.tan lor daiteke. Kalitate onekoak, ostera, 2.000 pta.tan, karatula eta guzti.

Noski, kontutan hartzen badugu filme originalak 14.000 pta. inguru balio izaten duela, atera kontuak.

Non datza pirateoa egiteak dakarren kaltea? Argi dago. 2.000 pta.tan lortutako pelikularekin irabaziak eskuratzeko, nahikoa dela 150 pta.tan alokatzea. 14.000 pta.ko filmea konpentsatzeko, berriz, alokairua 400, edo 450 pta.ra igo beharra dago.

Legez kanpoko izango da, baina jendeak nahiago du 150 ordaindu, 400 baino, kalitateari kasu egin barik.

Orain arte, gainera, pirateoa egiteagatik ezarri diren zigorrak ez dira bat ere gogorrak izan. Dendaren jabeak 10.000 pta.ko isuna ordaindu behar izaten ditu pelikula pirata bakoitzeko, eta agian hortxe dago errurik handiena. Gipuzkoako Bideo-klub Elkartearen usteetan, hasiera batean ondo legoke isuna ezartzea; baina berriz legehauste berdinean eroriz gero, kartzela-zigorra edo negozioa bertan-behera utzi beharko litzaieke.

Bien bitartean, eta erabaki hori aurrera eramanez artean, eurenak eta bost egiten darraite piratek!

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

BRANKA

jatetxea

Eguneko menua eta karta

Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK



Eusko Jaurlaritzak kaleratu berri duen “Soziolinguistikazko mapa” izeneko liburuan, 1986ko errolda egiterakoan arrasatearrok euskararen ezagupen mailari dagokionez eman genituen erantzunen berri datorkigu.

Aitortza pertsonalak direnez, datu hauen fidagarritasunaz luze ari da hitz egiten eta ez da falta kritika oso arrazoiturik egiten duenik. Ez gara gu, orain, datu hauen fidagarritasunaz arituko, eta datozenen berri ematera mugatuko gara.

Bestalde, Txillardegiren “Gizarte elebidunen azterketa matematikoa” izeneko liburuari esker, Arrasaten daukagun hizkuntz ezagutza kontuan izanik, euskara erabiltzeko dugun posibilitatea ehuneko zenbatekoa den ere argituko dugu.

Euskararen ezagupen maila Arrasaten

Atalataikoan

Bi diagramatik ezkerrekoak garbi adierazten digu benetan handia dela ama-hizkuntza edo ikasitako lehen hizkuntza erdera bakarrik dutenen kopurua, ehuneko berrogeitamabosta hain zuzen.

Eskubiko diagraman ikus daiteke, ama-hizkuntza euskara bakarrik edo euskara eta gaztelera izan dutenak elkartuta baino gutxiago direla euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutenak.

Bestalde, bost urtetik bost urtera egingo diren errolda berrietan ikusi ahal izango dugu egoera norantz doan; hau da, ia euskaldun horiek euskaldun bihurtu diren edo erdaldun jarraitzen duten.





Ama-hizkuntza eta hizkuntz gaitasuna

(Ikasitako lehen hizkuntza)

(Hitzegiteko gaitasuna)

Ama-hizkuntza

Hizkuntz gaitasuna



Lore Iurrindegia


Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Ama-hizkuntza eta hizkuntz gaitasuna adinka



Grafiko honek adierazten digu 65 urtetik 35 urtera bitartekoetan, ama-hizkuntzari eta euskaraz hitz egiteko gaitasunari dagokionez, beherakada dexentea eman dela. Bestalde, hiru urtetik hamabi urtera bitartekoetan izan ezik, euskaraz hitzegiteko gaitasuna ama-hizkuntzaren azpitik geratzen da, gaitasunik baxuena 35 urtetik 18 urtera bitartekoetan ematen delarik.

Hiru urtetik 12 urtera bitartekoetan ematen den hizkuntz gaitasunaren gorakadaren eragile, besteak beste, eskola dela esan daiteke.

Herri ereduak

Goiko grafiko horretan beste zenbait gauza ere antzeman daitezke. Hala nola, udalerrri bat euskalduna den, euskararen berreskurapena edo galera ematen ari den eta abar. Beraz, segun eta nolako grafikoa ateratzen den, ama-hizkuntzak eta hizkuntz gaitasunak era bateko edo besteko herri ereduak adieraziko dute.

Arrasateren kasuan, ama-hizkuntzari dagokion herri ereduak "P" da, eta hizkuntz gaitasunari dagokion herri ereduak "K" da.

"P" ereduak: berreskurapen motela

"P" eredu honek, hizkuntzaren berreskurapen motela adierazten digu, hau da, galera dexentearen on-

doren, berreskurapen geldo ematen dela.

"K" ereduak; berreskurapen bizia

"K" eredu honek hizkuntzaren berreskurapen bizia adierazten digu, hau da, galera handi baten ondoren, berreskurapen handia ematen dela.

Arrasateko kasuan berreskurapen handi hori ez da hain nabarmen ematen, hala ere, beste eredu baten faltan, "K" ereduaren barnean kokatzen da.


Urte batzuk barru ikusi ahal izango dugu gaur egungo 3-18 urte bitarteko gorakada horrek, beste adin multzoetan jarraipenik badaukan. Ez litzateke seinale txarra izango.

Gal indarra 1 eta gal indarra 2

Gal indarra 1: Ama-hizkuntza, euskara bakarrik izan dutenetatik euskaraz hitz egiteko gaitasuna zenbatak galdu duten erabat adierazten digu.

Gal indarra 2: Ama-hizkuntza, euskara eta erdera izan dutenetatik euskaraz hitz egiteko gaitasuna zenbatak galdu duten erabat adierazten digu.

Grafiko honek adierazten digu batetik, ama-hizkuntza euskara bakarrik izan dutenetatik %4,79ak galdu duela euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta bestetik, ama-hizkuntza euskara eta erdera izan dutenetatik %11,84ak galdu duela euskaraz hitz egiteko gaitasuna



Obrak direla eta
ERDIKO KALEAN GAUDE

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Tfnoa: 79 12 63

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,

Tfnoa: 79 87 74


ARRASATE

Eutsi indarra eta gara indarra

Eutsi Indarra: Ama-hizkuntza euskara bakarrik edo euskara eta erdera izanik, euskaraz ongi hitz egiteko gaitasuna zenbatek duten adierazten digu eutsi indarrak.

Gara indarra: Ama-hizkuntza euskara bakarrik edo euskara eta erdera izanik, euskaraz ongi hitzegiteko eta idazteko gaitasuna zenbatek duten adierazten digu Gara indarrak.

Eutsi indarraren kasuan kontuan izan behar dugu



edozein hizkuntzatan normalean %100 izatea dela, hau da, ama-hizkuntzan guztiak ongi hitz egiteko gauza izatea. Beraz, 86'87 ikusita ez dezagun pentsa egoera onean gaudenik; galera prozesu baten barnean gaudenik, ama-hizkuntza euskara behintzat izan dutenetatik %13ak euskaraz hitz egiteko gaitasuna galdu bait du.

Gara indarrari dagokionez ere esan beharra dago nahiko egoera anormala dela; izan ere, norberaren


hizkuntzan ongi hitz egiteko eta idazteko gai, %56 bakarrik izatea ez bait da inondik-inora pozgarria.

Badakigu datu hauek orain urte batzuk dela geneuzkanekin konparatuta gorantz egin dutela; baina ezin gaitezke honekin konformatu. Arrasaten jaiotzen diren guztiak euskaraz, behintzat, normal bizitzeko gaitasuna lortzen ez den bitartean helburua bete gabe egongo da. Horretarantz joatea dugu helburua, beraz.

Arrasate, Deba Garaiko beste herrieekin eta Aramaiorekin konparatu ahal izateko datuak

	Biztanle kopurua	Euskaldunen ehunekoa	Gal-indarra bat	Gal-indarra bi	Eutsi indarra	Gara indarra	Ahozko erak indarra	Idatzizko erak indarra	Kenk Indizea
Antzuola	2.130	65,84	0,39	4	98,15	63,81	11,52	4,01	2,76
Aretxabaleta	6.005	56,02	0,27	1,95	95,83	56,35	8,38	3,58	1,21
Arrasate	26.367	42,73	4,79	11,84	86,87	56,55	7,89	4,58	- 1,56
Bergara	15.718	65,90	0,76	6,18	94,82	66,54	14,26	7,58	1,82
Elgeta	1.041	85,29	0,12	2,56	98,94	36,35	14,63	5,48	1,30
Eskoriatza	4.004	50,27	0,73	17,03	89,55	55,88	2,96	1,19	- 4,42
Leintz-Gatzaga	207	78,67	0	0	96,77	58,70	11,90	2,38	0,40
Oñati	10.884	76,27	0,23	5,22	97,61	50,18	14,48	5,62	1,79
Aramaio	1.305	89,33	0,80	0	99	41,05	23,52	25,88	2,45

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

Hilbera
kafetegia



Uribarri Etorbidea
ARRASATE


Ahozko eta idatzizko erakar-indarra

Ahozko erakar-indarra: Ama-hizkuntza erdera bakarrik izan dutenetatik, euskaraz ongi hitz egiteko gaitasuna zenbatek duten adierazten digu ahozko erakar-indarrak.


Idatzizko erakar-indarra: Ama-hizkuntza erdera bakarrik izan dutenetatik, euskaraz ongi idazteko gaitasuna zenbatek duten adierazten digu idatzizko erakar-indarrak.

Grafiko honek adierazten digu, ama-hizkuntza erdera bakarrik izan dutenetatik %7'89ak, hau da, 1.145 lagunek lortu dutela euskaraz ongi hitz egiteko gaitasuna eta %4'58ak ongi idazteko gaitasuna, 653 lagunek hain zuzen.

 Ahozko erakar-indarra
 Idatzizko erakar-indarra



Kenk indizea



Kenk indizeak adierazten digu ama-hizkuntza euskara behintzat izan dutenak eta egungo hizkuntz-gaitasunaren arteko diferentzia euskararen aldekoa edo gaztelaniaren aldekoa den. Hau da, euskara banakako gaitasunari dagokionez, aurrera edo atzera doan.

Honela ba, kenk indizea positiboa bada, horrek adierazten du ama-hizkuntza euskara behintzat dutenak

baino gehiago direla, gaur egun, euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutenak. Kenk indizea negatiboa bada, ordea, alderantziz gertatuko da, ama-hizkuntza euskara behintzat dutenak baino gutxiago izango dira egun euskaraz hitz egiteko gai direnak.

Grafiko honek adierazten digu gaur egun Arrasaten ama-hizkuntza euskara behintzat izan dutenak bai-

no gutxiago direla euskara hitz egiteko gai direnak. Honek esan nahi du, Arrasateko 86ko errolda datuen arabera, **Arrasaten euskara ikasi dutenak baino gehiago direla ahaztu egin dutenak.**

Arrasaten aspalditxotik egiten ari garen ahalegin kolektibiboari esker gauza izango ahal gara negatibo hori positibo bihurtzeko. Horretara goaz.


Arrasaten euskara erabiltzeko ditugun posibilitateak

Txillardegiren, "Gizarte elebidunen azterketa matematikoa" izeneko liburuari esker, gaur egun kalkula dezakegu Arrasaten daukagun hizkuntz-ezagutza kontuan izanik, zenbat euskara entzun daitekeen herrian zehar ematen diren ahozko komunikazio guztietan.

Formula aplikatuz, arrasatearrok binaka jarrita %18 bikotetan euskaraz entzuteko aukera izango dugu, beraz, horrek esan nahi du nahita ere %18a baino gehiago erabiltzeko posibilitaterik ez dagoela. Eta posibilitate murriz horri, gehitzen badiogu euskaldun askok eta askok erdera "ederrean" egiteko duen joera kaltegarria, berehala konturatuko gara %18 horren azpitik geratzen dela euskararen benetako erabilera Arrasaten.

Hala ere, dudarik ez, segun eta zein tokitan euskara erabiltzeko posibilitate hori mediaren gainetik edo azpitik egongo da, guztiok bait dakigu egoera ez dela berdina auzo guztietan.

Gauzak horrela, Euskal elebakarrik geratzen ez den garai honetan, hizkuntz gatazkarik sortzen ez bada, hau da, euskaldunok euskararekiko jarrera aldatu eta noiz-nahi eta non-nahi erabiliaz euskaraz bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatu eta defendatzen ez badugu, erdal elebakarrek agintzen jarraituko dute euskaldungoak erderaz hitz egin dezan.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnok: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak



“Herri eraikuntzek galantak behar dute izan”

Mikel Garai, arkitektoa

Mikel Garai arkitektoa da Arrasateko Udaletxea berregokitzeko lanen arduraduna. Izatez Donostiarra, Arrasate txikitandik ezagutzen du, aita Bedoña auzokoa bait zuen. Arrasateko Udaletxea, berez eraikuntza ederra dela aipatuz, eraikuntza eraiki zuenaren lana onartuz garatu omen du bere oraingo lana.

— **A Press:** Zein arazorekin egin duzu Udaletxea berregokitzean?

— **Mikel:** Proiektuarekin orain hiru urte hasi nintzen. Udaletxeko eskailera nagusia oso ilun eta hezetasun handiaz aurkitu nuen, eskailerari argia ematen zion leihoa, atzeko leihoa, itxita zegoelako. 70. hamarkadan, Udaletxe osteko etxe berria egitean jtxi zuten leihoa. Udaletxea berrizteaz gain, eskailerari argia ematea zen nire arazo nagusienetakoa.

— **Nola konpondu duzu arazo hori?**

— Nire hasierako asmoa Udaletxeari dorre bat gehitzea zen. Dorreak bi funtzio nagusi zituen. Batetik Udaletxeari argia ematea eta bestetik, kanpotik dorrea ikustea, hau da, edertzea. Arrasatek dorrerik ez duenez, Parrokiak dorrerik ez duenez, Udaletxeak dorrea izan zezakeela pentsatu nuen. Dorrea egiteko proiektuak ez zuenez aurrera egin, beste irtenbideren bat aurkitu behar izan dut. Udaletxea eraikuntza publiko denez, sinbologia aldetik, nortasuna eman nahi nion.

— **Dorreak arrasatear askoren kontrako jarrera sortu zuen. Edozein modutan, dorrea baztertuta nola konpondu duzu argiaren arazoa?**

— Normala deritzot jendeak kontrako jarrera izateari. Jendeak txikitandik ezagutu dituen gauzak, daudenetan


gorde nahi izaten ditu eta ondorioz, kontrako jarrera hori, baina onartu beharra dut ni oraindik ere, dorreaz gogoratzen naizela.

Dorreak ez zuenez aurrera egin sabaian argizuloa ateratzea pentsatu nuen eta horrela egin da. Goian, atikoan marmolezko zutabeak jarri dira. Hasierako proiektuan zutabe horiek, dorrearen oinarria ziren eta orain erreferentzia gisa geratu dira. Zutabe horiekin, gorengo pisuari funtzio berria eman diogu. Udaletxea berregokitu aurretik, goiko solairuko alde biak banatuta zeuden, zutabeen bidez deanbulatorioa jarri dugu eta alde biak lotu egin ditugu.

“Oraindik ere, hasierako proiektuko dorrea dut gogoan”

Argizuloak, goiko solairuari eta eskailerari ematen dio argia.

Arazo nagusia argiarena izan dela esan daiteke. Edonola ere, Udaletxeari arazoizko egitura emateko ahalegin handia egin dugu. Eskailera nagusiaren alboan, bi atalondo jarri ditut. Lehen eskailera nagusiak areto nagusirako atea zuen. Areto nagusitik, laberinto antzeko batera sartzen zinen. Berregituraketaren ondoren, areto nagusiak hiru ate ditu. Ate berriak, lehenagokoa bezala-



Mikel Garai

koak dira. Atalondoaren bidez, udaletxeko beste bulegoetara joan daiteke areto nagusitik pasatu gabe.

— **Udaletxean egin diren lanak ez al dira oso suntuosoak?**

— Nik ez dut uste suntuosoak direnik. Lehengo batean, lagun batek Arrasateko Udaletxea ikusi eta Florentzian zegoela pentsatu zuela esan zidan. Gu, Florentzia, Venezia edota Londresera

lan egin dezaten erabili duela?

— Ni ez naiz politika gaietan sartuko, baina Udaletxeak denon etxea behar du izan. Ez dut aztertuko benetan horrela den ala ez. Baina denon etxea denez, zaindu egin behar da.

Gaur egun egiten diren etxeek belaunaldi bat irauneko gero nahiko dute. Udaletxeek aldiz, mendeak iraun behar dute zutik eta beraz material onez egin behar dira.

— **Gustora zaude egin duzun lanarekin?**

— Bai, nahiko gustora nago. Zenbait gauza hobeto egitea gustatuko litzaidakeen, baina gehienetan gertatzen den bezala diru kontuak mugatu egin nau.

Alondiga zaharrean, artxibategia egokitu dugu. Harrizko zutabe bi jarri ditugu artxibategian. Niri harrizkoak izan beharrean marmolezkoak izatea gustatuko litzaidakeen eta artxibategiak bukaeran dituen zutabeak ere marmolezkoak egin nahi nituen, baina ezin izan da egin dirik ez zegoelako.

Edozein modutan nahiko gustora geratu naiz egin den lanarekin.

— **Herriarrek ez al dute pentsatuko, Udalak herriaren dirua beraiek gustora**

Mendi Astea 1990

Besaidek antolatuta, ekainaren 11tik 17ra

Datorren astean, Besaide Mendi-zale Elkartearen ardurapean, eta Arrasate Kirolak eta Ola Oste bizikletak-en laguntzarekin, Mendi Astea 1990 antolatuko da Arrasaten. Egitarauaren barruan, honako ekitaldi hauek:

Astlehenean, bertako mendizaleen diapositiba emanaldia, Monterronen, gaueko 9etan.

Asteartean, Pirineoetako diapositiba emanaldia. Belen Eguzkiza eta Eugenio Gorrotxategiren eskutik, 'Mediterraneotik Donostiara eskiz'. Monterronen, gaueko 9etan.

Asteazkenean, espeologi diapositibak. Arabako Espeologi Taldearen eskutik, 'sistema del hayal de Ponata' saioa. Monterronen, arratsaldeko 8etan.

Ostegunean, Kirol-medikuntzaz hitzaldia. Everestera joango den espedizioaren medikua den Ramon



Garatek 'Elikadura mendian eta mendirako' gaia aztertuko du. Monterronen, gaueko 9etan.

Ostiralean, Jabier Garretaren eskutik 'Larra-Belagua' proiektzioa. Bailara hartako natura eta animalien bizitzan oinarrituriko filmea. Amaia antzokian, gaueko 10etan.

Ekitaldirik ugariak, larunbaterako utzi dituzte. Alde batetik, Mountain Bikez burutuko duten txangoa. Arrasate, Udala, Kanpazar, Irutontorreta, San Prudentzio, Zubillaga eta buelta Arrasatera. Irteera, goizeko 8.30etan, kiroldegian.

Bestetik, larunbatean ere, *Ikarus* taldearen saiakera. Udalaitzetik edo Murutik hegaldia, arratsaldeko 4etan.

Eta larunbatean ere, Rokodromoaren inaugurazioa. Bertako gazte batzuen eskutik erakusketa, arratsaldeko 6.30etan Kiroldegian.

Egitarauarekin bukatzeko, ostera, Igandean mendi irteera Abadiñora. Irteera goizeko 7etan izango da Garibain, eta 2.30etan bazkari ederra guztientzat. Apuntatzeko epea ekainaren 13an bukatuko da.

Badator, beraz, 1990eko Mendi Astea. On egin daiela mendizaleei!



ASAk 10; Besaidek 6

Larunbatean elkartu ziren Santagedako futbol zelaian ASA argazkilari taldeko maskeiluak eta Besaide Mendizale Elkarteko oilakumeak. Ikuskizun paregabea eskaini zuten bi taldeek. Gora-behera handiak bizi izan ziren, baina bigarren zatian argazkilariek aurrera egin zuten markagailuan. Gauzak horrela, azkenean 10 eta 6ko emaitzaz nagusitu ziren.

Argazkian mendizaleak, argazkilariak, eta atzekaldean partiduko hiru epaileak.

Mihi gaiztoek diotenez, hurrengo egunean guztiak ere gogordurek jota omen zeuden!

**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

p o d i u m a

Santi Gil, kirola bizitzaren oinarritzat

Santi Gil, bere bizitzaren erdia baino gehiago kirolaren munduari zuzenean lotuta eman duen gizona.

Futbol jokalaria ohia. "Hamahiru urterekin ekin nion UDAn jokatzeari. Maila guztietan ari izan nintzen han, eta gero, 22 urterekin, Mondra taldera etorri. Gazte mailako entrenatzaile titulua ateratu nuen, eta jokatzeaz gain, haurrak prestatzen nituen".

Dena den, 27 urterekin bertan behera utzi zuen futbola. "Segitzeko moduan nengoen, baina arazo pertsonalak medio, alde egin nuen. Ez du merezi kontatzea norekin izan nituen arazoak, baina pena handia haru nuen, sasoi ederrean egon eta taldea utzi behar...".

Direnak direla, oroitzapen onak gordetzen ditu garai hartatik. "Jokalarien arteko giroa, eta batez ere, Galdakaora joan, eta penaltixandan hirugarren mailara igotzea lortu genuenean; hura festa Arrasatera itzuli ginenean!".

Ordutik ere hurbiletik jarraitzen du Mondra taldea. "Erdi-purdiz ekin zioten denboraldiari, baina azkenean gora egin dute. Nere ustez, ordea, politikaz aldatu beharko luke zuzendaritzak. Jokalari mordoa ekartzen dute kanpotik, eta xoxa guztiak eurek eramaten dituzte. Arrasaten beti egon izan dira gazte oso onak, baina itxi egiten zaie bidea. Gure mutikoak Pedrus-



ko, edo Eskoriatzara joan behar izaten dira, eta horrela ez gabilta ondo. Gazteei ilusioa kentzen diete; eta gainera zertarako? Askotan taldearekin identifikatzen ez diren kanpotarrak ekartzeko!"

Atxabalpeko zelaia; nahiko elitista omen da Santiren ustetan. "Milioi mordoa gastatu, hamabostean behin partidu bat jokatzeke. Eta bien bitartean, Pedruskoko jokalariek, edo harrobiko mutiko guztiak hareazko kanpoan ahaztuta".

Gaur egun, jubilatuen STAR taldearen arduraduna dugu Santi. "1982an ekin nion mantenimentuko gimnasia irakasteari. Alde batetik, adin guztietako jendearekin ari naiz lau ordu egunean. Eta bestetik, Joxe Errastik duela bederatzi urte martxan jarritako STAR taldea daramat. Gozamen handiz gainera, jubilatuek oso jaiorak bait dira".

Bukatu aurretik, Mundialaren aurrikuspena. "Munduko zorte guztia opa diot Zubizarretari. Hori bai, favorito bat eskatzen badidazu, nere ustez Ingalaterrak irabaziko du".

Korta eta Markos txapelkun

Larunbat arratsaldean jokatu ziren Solaluzeko Arane kiroldegian Deba Arroa pilota txapelketaren finalak. Bertan, mondragoetarrok bi bikote izan genituen.

Alde batetik, alebin mailako Rubia eta Etxeberria. Laskurain eta Gartzia solaluzearrak izan zituzten etsai, eta gure mutilek 18-11 galdu.


Bestetik, gazte mailako Korta eta Markos. Hauek bai, asmatu egin zuten. 22-17 irabazi zuten Oskarbi-ko Ubera eta Deskargaren aurka, eta horrenbestez, txapela eskuratu.

Guztiei ere zorionik beroenak, burututako lan ederragatik!

Arrasatek 4; Eibarrek 3

Larunbatean jokatu zen Agorrosinen, bigarren infantil mailako Gipuzkoako koparen finala. Aurrez aurre, Arrasate eta Eibar taldeak.

Partidua oso parekatua izan zen; Eibartarrek 1-3ko abantaila ere eskuratu zuten markagailuan, eta gure jokalariek azken minutuan berdinketa lortu. Lu-zapenean, garaipenaren gola sartu zuten mondragoetarrek. 4-3, eta kopa Arrasatera. Zorionak, mutilak!

**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Istripuak, autoen aseguru eta gazteak

Duela gutxi iritsi zaizkit eskuetara ondoko bertsoak. Ez dakit horretaz gauza handirik, baina grazia egin didate. Eta automobila protagonista nabarmena denez... Idatzi dituen lagunak bere izena ez agertzearen baldintzapean eman dizkit. Beraz, behean doan nire ohizko sinadura oraingoan transkripzio-lanari besterik ez dagokio.

Automobila, marka Cadillac eresia duk berriki zaharra da baina, bere tamaina niri oso ondo datorkit. Estualdian, atzekaldian badago lekurik aski triki-trakatan egiteko han euki ezkerorekin.

Cadillac-ean abiatzean sentitzen naiz ni gustora ta orain gehiago, zeren hi hago etorria nire albora. Baby goazenean, hango tabeman entzuten dun rokanrrola, autotik jeitsi ta txupák jantzi ta orraztu tupeak gora.

(Doinua: Etorri al haiz)

Mikel Itxausti



AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,

Tfnoak: 79 18 86 - 79 45 99

ARRASATE

**TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKO**

**BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY**

AE

Garibai 10,

**ETXEKO TRESNAK
ARGITERIA**



**SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA**

Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

Euskaldunon kopurua

Euskararentzat txarrena ez da, beharbada, lurak galdu izana, bazik eta, euskal zonatzat jotzen direnetan, geroz eta hitzun gutxiago izatearen ondorioz, indarrak galtzea. Hizkuntzak hedadura galtzea larria bada ere, euskal zonetan gero eta hitzun gutxiago izatea askoz larriagoa da.

Euskal hitzunen kopuruaren bilakaera aztertzeko 1868ko eta 1970eko datuak ditugu. Ikus ditzagun, bada:

	A ZENBAT EUSKALDUN	EUSKALDUN PORTZENTAIAKA	B ZENBAT BIZTANLE	AB PROPORTZIOA
1	Araba 12.000	2	96.398	12
8	Gipuzkoa 170.000	36	156.493	100
6	Nafarroa 60.000	13	297.422	20
8	Bizkaia 149.000	32	160.579	93
8	Iparraldea 80.000	17	165.000	48
	Guztira 471.000	100	875.892	54
1	Araba 18.863	3	204.323	9
9	Gipuzkoa 276.843	46	631.003	44
7	Nafarroa 51.143	9	462.867	11
0	Bizkaia 172.229	29	172.229	16
0	Iparraldea 77.848	13	217.888	35
	Guztira 596.926	100	2.561.391	23

1868

Grafikoan ikus daitekeenez, duela mende bat euskararen hitzunkopuru osoko %68a Gipuzkoan eta Bizkaian zegoen.

Eta Euskal populazioaren dentsitateari dagokionez, deigarriena zera da: (ikus A/B)

— Bizkaiko eta Gipuzkoako populazio osoa euskalduna dela.

- Iparraldean gehiago batek euskaraz egiten zuela.
- Euskalherri osoan, euskaldunak gehiago zirela.

1868ko eta 1970eko datuen konparaketa

Euskara, 471.000 hitzun izatetik 596.926 izatera heldu dela ikus dezakegu, beraz 130.000 euskaldun gehiago du Euskalherriak. Baina, kontuz! euskal populazioa handitu egin bada ere, erdal populazioa askoz gehiago handitu da eta. Ondorioz, euskal populazioaren dentsitate izugarri jaitsi da: 1868an Euskalherriko %54a euskalduna zen, eta 1970ean %23a baino ez. Bizkaian (%93a euskalduna izatetik %16a izatera pasatzen da) eta Gipuzkoan (%100etik %44ra).

1970 ez geroztik ere euskaldun kopurua igo egin da. 1986ko datuen arauera euskaraz dakigunok 953.802 gara (Kontuz! dakigunok, ez hitz egiten dugunok), biztanlego osoaren %33.96a, hain zuzen.

Eragile nagusienak

- Madrilgo Gobernuak euskara suntsitzeko egindako politika.
- Euskal Herriko Burgesiak, euskal gizartean nagusitzean, bere hizkuntzat erdara hartzea. Zeren hizkuntza batek aurrera edo atzera egingo bait du, segun eta zeintzuk defenditzen eta hitz egiten duten. Goi mailako jendeak hitz egin eta defendituz gero, edozein hizkuntzak ere aurrera egingo bait du.

— Etorkinen uholdea: Euskalherri txikia izanik, beste hizkuntza baten hitzunik ziren jende gehiegi sartu zen denbora gutxirean buruan.

— Euskaldunon axolagabekeria: Euskara zein egoeratan dagoen jakinda ere, axolagabekeria nagusi bait da euskaraz dakien askorengan. Askok, erdaldunek ez dutela ikasten esan, haiei errua bota guran edo, eta erdaraz egiten bait dute, konturatu gabe euskaraz dakien arren, bera ere erdaluna dela.

Atalataikoan



ARRASATEKO UDALA

ARRASATEKO "ABAROA"
JUBILATUAREN ETXeko
TABERNA-SALOA USTIATZEKO
ESKUBIDEA ADJUDIKATZEKO
LEHIAKETA-DEIALDIA.

Informazioa eta oinarri-arauak Udaletxeko
Idazkaritzan.

RAFAEL LORENZO

**MEDIKU
ODONTOLOGOA**

Zargalde 3, 1. B
ARRASATE

**Tfnoa. berria:
77 12 63**

K
L
I
N
I
K
A
D
E
N
T
A
L
A

Alkohola (V)

Garunarekin batera gibela dugu gure gorputzeko organo garrantzitsuenetakoa. Laborategi miragarria da dudarik gabe: energiaren biltegia, bitaminen bankua, kolesterolaren fabrika eta proteinena ere bai, araztegia, desintoxikaziotegia, gatzapentegia (depurategia).. Hau da, lantegi kimiko konplexua. Baina ez dugu inolako kontrolik harengan. Bera da bere nagusi bakarra eta bere lanean ez du atsedunik hartzen.

Gibelean substantzia berezi bat aurkitzen da (A.D.H.), zeinen egin beharra alkohola garraiatzea bait da.

Prozesu zail eta konplexu baten ondoren, alkohola energia bihurtzen da, kaloriak bezala gordetzen delarik.

Baina gibela ez da suntsiezina; gorputzean sartutako substantzia toxiko guztiez defendatzeko ardura



duenez, gorputzeko organo zigortuena dela esan genezake.

Intoxikazio bati luzaroan aurre egin behar badio, gibela handitu egiten da. Bere zelulak pixkanaka hil egiten dira eta honen ondorio bezala bere garbitze edo purifikatzeko ahalmena galtzen da. Gaixotasun honek, hots, gibelaren suntsidura zirrosis bezala ezagutzen dugu, eta heriotza ekar dezake.

Zirrosis guztiak alkoholak eraginak ez badira ere, askoz ugariagoa dela edaleen artean ikusi da.

Gaixotasun larri honetara heldu baino lehen eta gibelak huts egin bitartez detektatzea posible da.

Batez ere, enzima batzuen determinazioa, transaminasak, ganma G.T. (GGT) eta G.O.T. konkretuki.

G.G.T. hori edale den bati neurri arruntetik gora igoz gero alkohola gibela afektatzen ari dela modu garrantzitsuan oharterazten digu.

Baina egia da ere edale guztiei ez zaizkiela transaminasak gehitzen eta era berean G.G.T. eta/edo G.O.T. altua noizbait agertu bada ere, ez du horrek edaleak direla esan nahi.

Beste zergati batzuk daude (hepatitisa adibidez) transaminasak igo erazten dituztenak alkohola edaten ez bada ere.

Eukeni-Arantxa

**Ekainak 9,
Amaia Antzokian
Arratsaldeko 6etan**

**Bi funtzio: 4etan eta 6etan
200 pezeta**



Txirri, **M**irri eta
Txiribiton

PAILAZOEN EMANALDIA




Arrasateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hiru handiak. Laugarren ibilaldia

Heldu da dagoeneko aurreko hila-beteotan egin ditugun entrenamentu guztiak probatzeko ordua. Asko izan gara gure gorputza eta indarra jorratzen ibili garenok ibilaldi honi ahalik eta sasoi onenean heltzeko asmoz. Behin froga hasita gero, gure prestakuntzaren eritzi bat emoteko moduan egongo gara. Orduan gogoratuko ditugu, agian, larunbat gaueko ibiltzearen ondorioz. Domeka goizean entrenatu barik ohean lotan eman ditugun orduak, eta hala bedi, nahikotzat joko ditugu. Aurtengo honetan ezin dugu aipatu gabe utzi Arrasatek izan behar duen parte hartzea, gasteztarrak eurak ere harritu egin ditugu eta. Iaz sasoi honetan Arrasate Pressen, arrasatearren parte hartzea eskasa izan zela bagenioen ere, aurten zorionez ezin dugu gauza bera esan. Iazko dozenatik aur-



Bataz besteko igoera: 4.000 m. eta jetsiera: 3.900 m.

tengo berrogeitamazazpira pasatu gara eta horren ondorioz antolatzaileak datorren urterako beste ekitaldi berezi bat egingo ei dute guretako.

Antotzaileek argi eta garbi uzten dute gose edo egarri izan aurretik jan eta edan egin behar dugula, bestela pajara handi baten menpean jausteko aukera guztiak ditugu. Horretaz gain,

ahal bada ez jan okelarik, azido laktiko daukenez, kalanbreak izan ditzakegu eta. Gogoratu horrez gain ere, komengarri dela izter eta belau bazterretako luzatze ariketak egitea.

Ah! eta jakin guk geuk hartu behar diogula neurria martxa honi, berak geuri hartu baino.

Hankamotz



COMERCIAL
TERRESTRE
MARITIMA
TRANSPORTES

ARANBURU COTEMAR


Garraio agentzia



ATA

Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

Onduline



URALITA

TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

M
A

ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

ARRASATE PRESS

Tfnoa: 77 08 15

Indarberritu den lehoi arrasatearra



RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

•1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoi heldu zaio.

•1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

Aste gazte

Orri honetan eskaintzen dizuegun informazioa Gazteentzako Informazio Bulegotik ateratzen badugu ere, dagoenaren muestra baino ez da.

Agian zure interesak beste bidetatik zehar doaz. Hala bada, hobe duzu Bulegotik pasatzea. Badakizu, Garibai Etxean gaude. Ordutegia: goizez, 11etatik ordu batera eta arratsaldez, 5etatik 7etara.

Bekak

• Kontsumo arloan, heziketa eta informazio ekintzetan parte hartzeko bidai laguntzak. Euskal Autonomi Elkarte bizi direnentzat. Dirulaguntzak: gehienez, 250.000 pezetakoak (matrikula, joanetorriak, eta abarren arabera). Epea: ikastaroa egin baino 15 egun lehenago.

• 1990.eko udan Alemanian ikasteko bekak. Euskadin bizi diren 16 urtetik gorakoentzat. Dirulaguntza: ikastaroa ordaintzeko gastuak, lojamendurik gabe.



• Atzerri merkataritzaren arloan adituak prestatzeko bekak. Goi mailako tituludunentzat (batez ere: Ekonomia, Enpresa Zientziak, Injinerutza eta Merkatal Zuzenbidea). Iraupena: 18 hilabete. Dirukopurua: 4.500.000 - 3.100.000 bitartekoa. Epea: 90-6-22.

Ikastaroak

• Keinua eta Marra: Txinako Pintura eta Kaligrafia. Uztailaren 23tik 27ra. Matrikula doan.

• Eskultura. Uztaila eta Abuztuan, astelehenetik ostiralera. Plaza kopurua: 15. Izena emateko epea: ekainaraen 22ra arte. Matrikula: 26.000 pta. (materiala bame).

• Serigrafia. Uztaila eta abuztuan, astelehenetik ostiralera (goizez edo arratsaldez). Plaza mugatuak. Izena emateko epea: ekainaren 22ra arte. Matrikula: 26.000 pta.

Panticosa Cultural

• Ekainetik abuztura arte, ikastaro-programa zabala dago Panticosako Baimuetxean: musika, emakumearen desarroilu pertsonala, aho-

tsa-tailerra, osasuna eta elikadura, mendi-natura, etab.

Lehiaketak

• Sestao: Saleko III. Pintura Lehiaketa. 15 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Eguna: Ekainak 24. Saria: 60.000 pta. eta aksezit.

• Pintura Lehiaketa. (PROAMI). Bakarrik elbarrituek har dezakete parte. Gaia: Gabonak. Sariak: 100.000, 75.000 eta 50.000 pta.

• Bilbo: Aste Nagusiko Kartel-Lehiaketa. Kolore eta Teknika, materiala eta gai libreak. Sari bakarra: 100.000 pta. Lanak aurkezteko epea: ekainaren 30era arte.

Ihardualdiak

• Bideo-sorkuntzarako Ihardu-naldiak. Ekainaren 18tik 29ra arte. Artelekun. Izena emateko epea: ekainaren 15era arte.

• Sexualitatea Ertaroan. Uztailaren 4etik 7ra, Darocan (Zaragoza)

Informazio gehiago:


Gazte Zerbitzuan, ☎ 77 00 65 eta 79 09 00



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

ETXEBIZITZAK

- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuek deitu 79 62 89 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko teiltupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikia edo teiltupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teiltupea edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.
- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Alokatzeko pisua behar dut Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoak: 79 13 95 eta 79 16 57 goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte. Flor Tellez.
- Torrevejan bungalow-a alokatzen da ekain, uztaile eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47
- Loramendi kalean 6.pisua salgai 80 m2. Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsaldez)
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da. Tfnoa: 79 45 74.
- Laredon apartamentua alokatzen da. Informazio gehiagorako deitu 79 52 80 tfnora.

LANA

- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neska etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neska etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuek dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gaez.
- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuek 79 50 88 Tfnora deitu. Garbiñe.
- Neska euskalduna behar da Donostiako etxalde batean. Ez da bakarrik egongo. Soldata ona. Interna. Tfnoa: 40 00 86 bulego orduetan.
- Gazte taldek pinudiak garbituko lituzke edo antzekoak. Tfnoa: 79 97 84 Kazintxo
- Umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. M^a Jesus. Tfnoa: 79 99 17
- 2. REMeko (euskaraz) mutikoari matematika klaseak emateko pertsona behar da lehenbai lehen. Tfnoa: 79 33 45
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Ikasle unibertsitarioak udako hilabeetean edozein lan egingo luke. 79 51 95 telefonora deitu.
- 18 urteko gaztea udako hilabeetan edozein lan egingo luke. Tfnoa: 79 51 95.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuek 79 98 34 tfnora. deitu, arratsaldeko 13.00ak eta 16.00ak bitartean.

SALEROSKETAK

- Bizikleta ia berria salgai. Reynolds 531 Mercier. Pieza gehienak Zeus. Talla: 58. 65.000 pta. Tfnoa: 76 32 69
- Amstrad CPC 6128 ordenadorea salgai. Disketa (3''), 128 k., Kolorezko monitora, joytick profesionala (telemach), programak (datu-basea, testu prozesadore...), 40 joku eta manualarekin. Tfnoa: 76 25 12.
- Bizikleta salgai. 10-12 urtekoentzat aproposa. Merketxo. Tfnoa: 79 31 04
- Bi bizikleta ditut salgai. Bata paseozkoa bestea karreterakoa. Tfnoa: 79 39 88
- Bigarren eskuko argazki makina reflexa erosiko genizuke prezio onean baduzu. Jabier 79 80 86
- Opel Corsa GSI, SS- 2145-AF salgai. Tfnoa: 79 46 41 Felix
- Moto Guzzi 1000 California salgai. Tfnoa: 79 87 62
- 100 W-ko Marshall kitarra amplifikadorea salgai. 100.000 pza. Tfnoa: 79 62 71.

DENETARIK

- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin permuta egingo luke. Interesatuek dei dezatela tfno. honetara: 79 26 69
- Edozein motatako liburuak forratzen dira, liburutegikoak, hiztegiak, etab. Interesatuek deitu: 77 00 29 Josefa
- Bururatzen bazaizkik horrenbeste askaketa / sudurrean hasiko zaik peka / Zorionak Eneka! JO TA FUEGO.

ARRASATEN HILDAKOAK

Antonio Garcia Cabezas de Herrera
Maiatzaren 30ean. 89 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Paulino Ibabe eta Sabina Dolara (I): ganau eta animalixa kontuek



Sabina eta Paulino

Hogei urtien paradie eukitte

Paulino: Gu, hogei urtien paradie eukitte gaz, eta ba, hemen inguruetatik asko etorten zien behixaz zekorrana. Sarritten bueltautekuek ekarten zittuen, eta matrize garbittu eñ biher izeten jakuen. Barruko lohi dana kanpora atara.

Handik behixen matrize ezautu eta apur bat jarri nitzen, besteik ez.

Gero, hemendik jentie lanera faten zan, eta behixe txahala eitteko auenien, ni zela etxien ninguen, niana etorten zien danak. Eta esan ezkerro, fan eñ biher; pereza barik fan izan naz, gustora.

Sabina: Etxien behi suiiza edarra txala eitteko auen eta rekonoziru auen eta esan eusten; 'hankaz gora dauko txaloi tripan'. Sartutzen eskue, kosta jakon baiñe txalorri tripan eñ utzen buelta, ipiñi auen bere lekure eta eñ auen txaloi ederto.

Txala eñ eta gero...

Paulino: Txala eñ eta gero ardaue emun izen jako behixei. Eta gero biñegrie eta gatza bota eta bañau, eta gero mantau hoztittu ezteñ.

Sarritten behixek erroibiena izeten dau eta halakuetan gauza ona lejia da. Inflamaute dauen lekuen lejiaz igurtzi eta bigunduko jako errepeioi, lejia oso ona da.

Txarrixek mahaittik salto

Paulino: Txarri hiltten be ibili izen naz bañe hau etxaten niri pasau. Artien etorteko ninguen hona eta Ualdeko Bitoriano etorten zan txarrixek hiltten, da egun baten txarrixek hiltten ekintze, kutxillue sartute eta halako baten salto eñ, eskuetatik ihexi eintze eta txarrixek kortan ziber odala daixola.

Sabina: Ama larri buruei heldute, ia zeaz eñ bihe zittuen, mortzillek eta odolostiek.

Eta aitte tenplae zan da, Errotako aittejaune eta tio Esteban, euntzitten ezenok kortako atien barreka eta txarrixek kortan buelta danien odola daixola. Ualdeko karnazeruoi gantxuaz txarrixek ebatu ezinde, eta ama buruei ebatute euri beittuaz: "baiñe barreka zaze, baiñe mutillak ebatiozue ba txarrixorri. Baiñe nik odol barik, ze mortzil da odoloste eñ biot". Ha zan txistie ha!

Kuatrobienton txarrixek lotu

Paulino: Txarrixek hiltten fanitzen enda, Bittorin gizona, habe neu letxe iger bat zan, eta ha ta bere loba bat eusteko bakarrik eta Bittori odola hartzen.

Zabalduzto kortako atioi txarrixorri ta mekaue, iriskue baiño txarri haundi-xaue hamalau-hamabost arruako txarrixek. Heldu nutzen nik gantxuekin, ekin gara jasoten txarrixoi mahaire eta atzie ezelabe ezin jaso.

Lobiorrek hankak lotu bitzela txarrixorri ekin zan hankak lotzen eta hango kurriskie, hango zaatie, orduen kuatrobienton egon bazan arratoirik danak mar-txa eiño auen. Azkenien hankak lotute hil gauen.


Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Fernando Animen egunez joan zan kanposantura urtero bezela. Eta urtero bezela erraparau eban sepulturetan R.I.P. ipintzen ebala. Errezuok akabau zittuenian Fernandok zigarrua piztu eban. Andria suak eta garrak hartuta jarri jakon:

- Fernando, hau eztok erretzeko tokixa!

- Baiña Antoni, ezton ikusten toki guztietan "erreipe" ipintzen dabela?



Azkenengo gerratian tekniko aleman bat zebillen Plaentziako kaiñoi-fabrikian, Alemaniarako eitten zien lanen arduria zeukana. Plaentziarrak diñue harro samarra zala. Bera modurik ez ei zeuan munduan.

Plaentziarrak errekkako sakapetan peskan oso zaliak zien eta esan biharririk ez murgillari onak ziena.

Behin alemana ba ei ebillen erronka baten Plaentzian ez euala bera lako murgillaririk esanaz. Berbatu da plaentziar batekin eta egin dabe posturia zeñnek murgil luziagua egin. Domeka goizeko beratzitarako ipiñi dabe zitia presapian. Esandako ordurako zain zeuan alemana, eta hor nun agertzen dan plaentziarra bizkarrian morrala eta eskuan ardao-botia ebala. Alemanak mendirako itxueria hartu zotsan eta preguntau zotsan txokauta:

- Hi, baiña murgilla eittekotan geldittu gifuztan eta hi morrala eta botia-kin hator.

- Ni bai, ni egun guztirako najoiak.

Hori entzun ebanbian billurtu ei zan alemana eta rrio egin, atzeraka egin eban. Orduan akabau ei zien harren fanfarreixak.

Juan Martin Elexpuru

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

HAURTXOA
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE



Magdalena kaleko Hiru Graziak Deban 1925

Rubens pintore famatuaren *Hiru Graziak* datozkigu gogora Debako hondartzan ateratako argazki hau ikuste hutsarekin. Charlestonaren garaiko hiru grazia hauek mondragoetarrak ziren, Magdalena Kalekoak, eta Zeusen alabak baino jantzixeagoak ager-tzen zaizkigu.

Dirudienez, garai hartan hirurak neskametzan ari ziren Donostia eta Kostaldean batipat. Egun librea zuten batean Debara joan eta ordukoa izango da argazki hau.

Ahaleginak egin arren, ez dugu ezkerrekoa nor den jakiterik izan. Erdikoa Juana Berezibar dugu, Amadeo Berezibar. *Plus Ultra* tabernako jabearen alaba zaharre-na. Behin Armengou pintoreak koadro batean pintatu zuen, geroago Luis Ubago dentistaren itxarongelan urte luzetan zintzilikatuta egongo zen koadroa. Juanak Cerrajeran egin zuen lan eta baita Cuchareran ere, bietan errematxatzaile lanetan. 52 urterekin hil zen, minbiziak jota.

Esquinean Karmen Zubialdea "Torres" artean neskame segurue-nik eta geroago sukaldari famatua Monte tabeman, Garagartzan, Bergaran eta ia inguru osoan.

Ezagunak ziren Haratuzteetan eta, sekulako umorez, itzelezko ikuskizunak antolatzen zituztelako. Magdalena kaleko Hiru Graziak.

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

APOTZAGAN

S. Migel jatetxea

Egunero goizeko


Tetatik zabalk

Tfnoa: 77 04 94 / 79 83 93

B
e
g
i
-
f
l
a
s




Tomax dendaria pozik jarri da bezero berria hurbildu zaionean...



... baina ez du aurpegi bera aldegin duenean. Zer erosi du bezero maitagarri horrek?

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

SANIDES

Parasitoei aurre egiteko
Insektu narraztiak akabatzeke,
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

TXAO, POULI!

Zeharo aldatu da Poulikevik azken boladan.

Begi gorrituak, nortasun galdua.

Jerimgaren dizdira kale estu ilunean, eta jakin hasi berria den bidaia goizaldean amaituko dela, egunsentiaz blai.

Poulike, zuloak irentsi zaitu.

Zure aurpegi argala. Depreak jotzen zaituenean soilik, orduan ulertzen dezu bizitza ederregia dela; eta halere, zure hogeitaz urteak behin eta berriro joko madarikatuaz itto...

Itzulerarik gabeko bidaian.

To, Pouli, badakit. Nik errandakoak zuri bost axola, baina ez zara batere legala. Hain moteldua somatzen dut zure ama kalean behera pasatzerakoan...

Min ematen diote semearen zaina zulatuek; andere gaxoa, aspaldi lehertu zitzaion bihotza mila puskatan, eta zu tan kanpante.

Beste bat; eta beste bat.

Hori da espero dezun guztia.

Beste tomada puta bat.

Iritsiko dela eguna. Orduak aurrera, astiro-astiro gau iluna heldu.

Eta kale estuko izkin ahantzian, hogeitaz urteko gazte baten gorpu bizigabea aurkituko dute.

Haren alboan, jeringa jada hustua!


Egun horretan, Po, seguruenik malkoren bat edo beste eroriko zait aurpegian behera, hainbestetan elkarrekin jorratutako Ikastolako bidea oroitzerakoan.

Eta zin dagizut, zure ama zahartua kalean behera ikusten dudanean muxu beroa emango diodala zure partez.

Muxu goxoa.

Itzulerarik gabeko bidaia faltsuan galdutako semearen partez.

Bon J.



**ASEGURU
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

■ **Euzkarazko bederlatzi bideo-kasete gehiago.** Eusko Jaurlaritzak beste bederlatzi bideo-kasete plazaratu ditu euskaraz. Hauek dira tituluek. *Astakiloen abenturak eta kalenturak, Rio Bravo, Bonnie eta Clyde, Lurralde txarrak, Jeremiah Johnson, Victor eta Victoria, Ben Hur, eta Arka galduaren bila.*

Zinta hauekin hemeretzi dira Eusko Jaurlaritzak euskaratu eta plazaratu dituen zintak. Aurretiaz ateratako tituluek arazoak izan zituzten bideo klubetara heltzeko, berauek erostea edo alkitatzea oso zaila eginez. Hori berriro gerta ez dadin, oraingo honetan lehiaketa publiko bidez JC Producciones y Distribuciones, S.A. enpresari eman zaio zintak zabaltzeko eskubidea.

Aurten beste hamar filme aterako dituztela agindu dute Jaurlaritzako ordezkariak, besteak beste *Quo Vadis, Mugarik gabeko saldukeria, Angel's heart, Excalibur, Abereen etaldea, Isidoro, Sherlock Holmes eta Mafalda.*

Agindua betetzen bada, ez dago txarto. Poliki-poliki joango da euskal bideoteka osatzen. Dena den, moteltxo ez ote doan nago bideoak euskaratzeko ahalegin hau.

Dena den, urratzen ari da bidea eta hori da inportantea. Zinea, ostera, hor dago erabat erdaldunduta, zine antzokietan ikusten dugun zineaz ari naiz, jakina. Horri ere noizbait tokatu beharko zaio txanda, ez?

■ **Gaur egun.** ETB1eko albistegiak hogeita minutu irauten du. Gaztelaniaz egiten den Teleberrik, ostera, hamar minutu gehiago. Arrazoa? Euskarazkoa egiten dutenek hamar minutu lehenago irten behar izaten bide dute, Teleberrikoei lekua egiteko.

Asteburu iluntzetako Gaur Egunek, bestealde, 8.30etan omen du ordua, baina gauza bat dela edo bestea, oso gutxitan eman izan da agindutako orduan. Dirudienez, egun horietako aundientzia maila oso baxua da. Ordu aldaketa horiek ez diote, ez, mesede haundirik egingo.

■ **Iturri onetik bertsotan.** Oso gustora entzun nuen Euskadi Irratian Xabier Amuriza eta Jon Lopategik ixilaldi luze baten ondoren, lehenengoaren berragerpen publikoan kantatu zuten saioa. Gai asko jorratu zituzten bertsolari biek, bataren umea zela, bestearen txapela eta bion adiskidetasuna, gauza asko zegoen aipatzeko eta. Saioa oso polita eta umorez betea. Horretaz gain, Amurizaren buelta benetan pozgarria.

Joxe Aranzabal



— gusto baduzu —

■ **Eskorpioia:** Ernesto Telleriak zuzendutako filmea, ostiralean, 9etan. Antzezleak Francois Beac-kelaess, Agnes Chateau, Antonio Resines.


Emilio, guda denboran joandako gaztea, bere herrira itzultzen da orain inolako asmorik gabe; baina bidean ikazara heltzen da, eta zeharo aldatuko da muga dagoen herri txiki honetako bizitza...

■ **Depeche Mode:** ETBk azken boladan programatu dituen musika emanaldien barruan, honako honetan Depeche Mode taldearen txanda izango dugu. Modernismoaren mai-xu ditugun ingelesak, igandean, gaueko 23.30etan.

■ **Dragoiaren urtea:** China Townen gertatzen den istorioa. Brooklyneko polizia amerikar baten eta asiarrak lirain baten arteko amodiozko istorioa dugu.

Michael Cimino-k zuzendutako filmea, asteazkenean, gaueko 9etan. Antzezleak Mickey Rourke, Ariane Koizumi eta John Love.

bideoak



Enperadore afrikarra

Honakoan, Septimus Severus Enperadorearen historia kontatzen zaigu.

Septimus Severus Erromako Enperadore izan zen 18 urtez, baina Afrikako Tripolitaniatik etorri zen. Enperadore izatera iritsitako lehen afrikarra izan genuen, hain zuzen ere.

OSTADAR IRRATIA
(102 F.M)

Ostirala


3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Diarario Vasco -Egin, Correo eta Deiak ez bezala- ez du inoiz aipatzen ATBren programazioa Arrasateko kroniketan. Asmorik ere ez, zeren Txema Urzelaik esan zigun moduan, hori publikitatea litzateke eta, noski, publikitatea ordaindu egiten da. Guk dakigunez, DVK ez die TVE, TF1, A2, ETB eta FR3ri ezertxo ere kobratzen egunero haien programazio luzeak argitaratzearren. Hala ere, maite zaitugu Txema.

a s t e k o

PROGRAMAZIOA

11 ASTELEHENA

20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **Mondrasport**. Jon Anduezak zuzendua
21.00 **Medikua etxean**. Bittor Irigoien eta Arantxa Lizasok aurkeztua. Gaia: diabeteak
Berriak (errepikaldia)

12 ASTEARTEA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)
13.00 **Medikua etxean** (bezperakoa)

13 ASTEAZKENA

20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**. mahaingua. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: azoka, dendak eta maxidendak Arrasaten.
Berriak (errepikaldia)

14 OSTEGUNA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

15 OSTIRALA

20.00 **Berriak**. Begoña Garaik aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**. J.R. Elortzak aurkeztua. Gonbidatua: Agustin Beitia "Xipi"
20.50 **Musikantoi**. Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek aurkeztua. Euskal Herria eta mundu mailako rock talderik onenak.
Berriak (errepikaldia)

16 LARUNBATA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)

San Juanetarako programa berezia izango dugu Arrasate Telebistan. Seguruenik platoa Sebero Altube plazan jarri eta hainbat saio zuzenean emango ditugu, festaren taupada bizi-bizian jaso ahal dezazuen. Emango ditugu berri gehiago.



Aste honetako *Medikua etxean* saioan Diabetesak aztertuko dituzte **Bittor Irigoien** eta **Arantxa Lizasok**. Interesgarria izango da saioa, kontuan izanda batipat zenbat diabete kasu ikusi eta entzuten diren bazterretan. Astelehenean, Mondrasporten ostean.



BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

Lua
gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Inoiz baino gehiago behar izango duzu betidanik eduki ez duzun egonaria; lasaitasuna zuek lortu beharko duzu, horrelakoetan ez bait diezazuke inork lagundu. Arazoei ez utzi okerreko biderik hartzen.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Itxura hobetzeko ahailegin guzti horiek primean etorriko zaizkizu jendearteko harremanetarako. Maitasuna ahulduz doala uste izango duzu, baina nekearen ondorioz suertatuko ustea baino ez da izango.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Etxera itzazu aurrera zure nahiak, baina ez horregatik laga egin beharrik. Zure inguruan jendea ez dabil oso osoko, jarri iezaiezu merezi duten arreta, horren truke ezer espero barik.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Gogaituta egotetik kementsu egotera pasatzen zara egunero egunero. Jarrera honek nekatuta eta desorekatuta bizi izatera bidera zaitzake. Txoro zabiltza amodio horretan.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Arazoak izango dituzu lagunarekin, harremana bukatuz eta berrituz ibiliko bait zara; hala ere, behar adinako egonaria izango duzu hau jasateko. Osasun aldetik ez duzu gorabeherarik somatuko.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Aste oparoa datorkizu Virgo, sekulako ideiak izango dituzu eta gainera esfortzu handiegirik egin barik jarriko dituzu praktikan. Ez zara oso osoko ibili amodio kontuetan.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Era guztietako presioak jasaten ari zarela irudituko zaizu, estu eta larri ibiliko zara horregatik, zure irudimena baino ez da. Arazoak datozen moduan onartuz gero, hobeto sentituko zara. Zuhur jokatu diruarekin.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Denboraldi ona daramazu Eskorpio, halere zeure onetik ateratzen zara batzuetan eta hutsik sentitzen. Poztasuna eta tristura bere neurritik ez ateratzen saiatu. Kontuz nerbioekin.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Asteburu honetan gorabehera emozional ikaragarriak izango dituzu, kontrolatu ezinekoak gainera, beraz saia zaitetz hartueman handirik ez izaten. Maitasuna rutina bilakatuko zaizu eta lirikar ugari izango duzu.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Egingo dituzun planta eta jarriko duzun bondatea alperrikakoa izango da, halere jota eta gogaituta jarraituko bait duzu. Eutsi goiari alperrik galdutako astea irudituko zaizu bestela. Negarti ariutiko zara lagunarekin.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Tristurak sekulako eragina izango du Acuario, negarrari eta oldarkortasunari emango bait diozu. Maitasunean zalaparta ugari erabiliko duzu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Probetuzko astea izatekotan, bihotz zabala izan beharko duzu. Lasai hartu egin beharrik besteen presasko eskakizunei trabak jarritz. Pipermixkat jarritu laguna eta bion arteko harremanean.



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnok: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Gojain Industrial Polígonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74 AGURAIN

EUSKARA IKASTEKO BARNETEGIA 90

Non: **Fraisoron eta Zabalegin**


Noiz: **uztailaren 2tik 20ra**

Mailak: **4., 5., 6., 7. eta 8. urratsak**

Matrikula: **25.000 pta.**

- Kantariak
- Filmak
- Txapelketak
- Txangoak
- Bertsolariak

UDAL



ARRASATEKO
EUSKALTEGIA

UDA IKASTAROA 90

Non: **Arrasateko Udal Euskaltegian**

Noiz: **Uztailaren 2tik 27ra, 5 ordu goizez**

Mailak: **Guztiak**


Matrikulaldia: **Ekainaren 11tik zabalik**

Prezioa: **5.000 pta. (beka sistema ere badugu)**

Arimazuri 2, Tfnoa: 79 70 77 Arrasate

16 urtetik gorakoentzat

UDAL




ARRASATEKO
EUSKALTEGIA



Merkatu-eguna

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina



IKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

FAGOR



- BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
- SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42